

hiruka

192. zenbakia
2023ko otsaila

UME ASKO
ESKOLA
TXIKIA

LEKU-ARAZOAK SOPELAKO ESKOLA PUBLIKOAN

Zipiriñe
soluzioaren
zain



OTSAILAK 10 FEBRERO
Auditorium // 20:30 // 10 €

GUDA DANTZA
(Euskadi)



OTSAILAK 19 FEBRERO
Auditorium // 18:00 // 6 €

KELONIA ETA ITSASOA
Gorakada Teatroa (Euskadi)



OTSAILAK 24 FEBRERO
Auditorium // 20:30 // 12 €

MAGALLANES Y ELCANO
Producciones EME2 (Galicia)



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Zipiriñe eskolako leku-arazoa, aztergai
- 10 Herriz herri
- 18 Hirudika: UK Foto
- 24 Berbetan: Unai Aranzadi, gerra-kazetaria
- 28 Uribe Kostako agenda
- 30 Lehen/orain eta Uribitakora
- 31 Musikhariak: Nize
- 32 Maddalen Aristegi eta Ane Narbarte, Loregorri proiektua
- 33 Lucia Astigarraga, eszena zuzendaria
- 34 Zinez diot eta Irakurrian
- 35 Usategi
- 36 Berango-Urdulizko Eskubaloit Taldea
- 37 Getxo Irristan kluba
- 38 Iritziak eta Horoskopoa
- 39 Pil-pilean
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



Enrique Larrabaster, Txikitero beterranoa



Zipiriñeko ikasleen gurasoak ez daude adabaki gehiago onartzeko prest



Unai Aranzadik bere azkenengo lana aurkeztu du: A Costa dos Lançados



«Berdintasuna sustatu du gure taldeak beti»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Nahia Martinez Gondra, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Joxe Belmonte, Janire Enzunza, Joanes Atxa, Asier Barruetabeña, Iñigo Esteban Lezkano, Pamiela, Joseba Santxo, Nerea Garcia, Iraide Juaristi eta Uxune Iriondo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Bizitzearen zikloa

JANIRE ENZUNZA LANDA Filologoa eta irakaslea



Bizitzea zikloa da. Hasiera- eta amaiera-data ditu. Sortu eta hil egiten da. Jaiotzea eta heriotza dira guretzako mugarrak. Tartean dagoanaz berba asko egin arren, oraindino hainbat tabu dagoz lehenengo eta akabuko momentuei buruz; bai lehenengo pertsonan bizi dabenentzat, bai ingurukoentzat.

Garrantzitsua da jaiotzea eta heriotza duinak izatea, eta uste dot gai horrerik gizarteak oraindino ez deusola ondo heldu. Sorrereak eta amaierak be eragiten dabe tartekoan, batzuek kontrakoak pentsau edo beste alde batera begiratu gura izan arren.

Bizitzearen ziklo handiaren barruan, badagoz kontuan eduki beharreko beste hainbat ziklo be: hamarkadak, urteak, urtaroak, hilabeteak, asteak, egunak, orduak, momentuak... Horreek jagotea komeni jaku, txikerretik egiten dalako handia. Zein garrantzitsua dan eguna ondo hastera eta amaitzea, ingurukoakaz lehenengo eta akabuko agurrak aproposak izatea, telefono-dei bateri modu atseginen erantzun eta eskegitea, batzar baten maminaren aurretik eta atzetik zer dagoan ikustea...

Batzuetan emoten dau prisazko kontuek lekua kentzen deusela zeregin garrantzitsuai. Denporea urregorria dala dinoe batzuek, baina eskutan hartu eta aprobetxau be egin behar dogu.

Siestan

JOXE BELMONTE F. DE LARRIONA Idazlea



Zapatuan, arratsaldeko lauretan, siesta gozoan, telefono dei bat, erdi lo bai erantzun, eta, segundo batzuren ostean, ahots batek, nire izen eta guzti esanda, galdetzen dit ze konpainia elektriko dudan, eurek elektrizitatea merke-merke dutela, eta euren *energybonoen* bidez Maldibak irletara joateko bidaia bat toka dakidakeela. Nik zapatuko siestan ez dut Maldibetara joateko gogorik, ezta horretaz pentsatzekorik ere. Ez, eskerrik asko.

Berriro Morfeoren arratseko ferekaren zain nagoela, beste dei bat. Oraingoa segurtasun enpresa bat da, ezer saldu baino lehen beldurra sartzera jotzen duena, *etxean okupa batzuk sartzen zaizkizula imajinatu*. Pikutara bidaltzeko gogoak eman arren, kortesiaz ez zait interesatzen diotsot. Beste aldekoak, jo ta ke, *zure etxean inor ez sartzea espero dut*. Kasik mehatxua, desioa baino. Azkenean kortesia pikutara bidaltzen dut, telefonoa eskegi baino lehen.

Ez Robinson Zerrenda, ez nire telefonoaren zerrenda beltz luzea. Ez al dago zapatu arratsaldeko siesta errespetarazten duen ezer? Lo-kuluxkan berriro, *Datu pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Legea* datorrit gogora, amets forma hartuta. Haserreak iratzarri nau. Akabo siesta!

Puntua eta kontrapuntua **Sopelako Zipiriñe eskolako leku-arazoak**

Etorkizunari zor

*Hiruka irakurtzen
zer nolako festa!
Gure eskualdean
aldiro protesta:
«Etxeak hutsik daude,
eskolak gainezka».
Ikasi nahian zenbat
mutil, zenbat neska...
Denentzako lekurik
hala ere ez da!*

**ITXASO
PAYA
RUIZ**
Algorta

*Zerbait zor diogunez
etorkizunari,
gertatuko denari
gaude denok adi.
Ez da berdín sartzea
bi ala hamabi.
Eskaintzeko duena
gera dadin argi,
behar beste espazio
eman hezkuntzari!*

**MIKEL
ARRATE
ZELAIA**
Berango



Enrique Larrabaster Zabala Koruko abeslaria

«Jentiek zertako dan ikusten dabienien porta eitzen da»



Plentziako Txikiteroen eta Iraunkor abesbatzeko abeslari beteranoena da Enrique Larrabaster. Gainera, herrian jendeak «sano asko» ezagutzen duela dio.

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ▶

Plentzian bizitzaren parte gehiena egin du, tokiko Eliz plazan bere emazteagaz batera zuen Muebles Larra izeneko altzari-dendan egiten zuen lanagatik; hala ere, gorliztarra izaten jarraitzen duela dio Larrabasterrek. «Abadean etxian behean eukin izen dot denda, eta izen hori jarri genion nire emaztearen abizena izan zalako Larrazabal eta nirea Larrabaster dalako».

Kontatu duenez, herrian jendeak «sano asko» ezagutzen du, eta erretiratu ostean ere bat baino gehiago joan omen zaio altzariak eskatzen. Hala ere, orain erretiratu dago eta, besteak beste, kantuan aritzen da Plentziako Txikiteroen taldean eta Iraunkor abesbatzan. Hala, Agate Deunaren bezperan aurkitu dugu Larrabaster, blusa, tx-

pela eta abarkak jantzita, makila eta guzti, eskualdeko herrietan kantuan aritzeko prest; eta nola kantatu gainera!

Talde bietako beteranoena izateaz gain, sortu zirenetetik horietan dabilela diosku. Beragaz batera, alabak ere Agate Deunari abesten joan ohi direla ere kontatu du, baina deitoratu du jende gaztea falta zaiela ohituragaz jarraitzeko.

Abesteaz gain, egiten duten ibilbidea antolatzeaz ere arduratzen da: «Gehienetan neu ibiltzen naz autobuseagaz, non lotu, nora jun... Beste lagun bat euki naben, baina ha joan zan beste mundure. Biok etorten izen gara egun batzuk ariñau ikusteko non ein geuzak, non egoten dan jente gehiau, ahal dan opari guztiak eroateko, nik esaten doten moduen, Barrieko jentieri laguntzeko».

Talde gehienak ez bezala, Txikiteroak bi egun ateratzen dira abesten: lehenik, Agate Deunaren bezperan, Urdu-liz, Barrika eta Gorlizetik egiten dute ateraldia, eta, Santa Ageda egunean, Plentziako kaleetan egiten dute kantuan. «Jentiek ikusten deuenien zetako dan eta zelan gabiltzezan, porta eitzen da», nabarmendu gorliztarrak. ◀

Zipiriñeko ikasleen ez daude adabaki ge onartzeko prest



gurasoak hiago

**Hezkuntza Saila
Zipiriñeko Ikasleen Gurasoen
Elkarteagaz eta Sopelako
Udalagaz elkartuko da martxoan.
Barrakoiak kenduko dituztela
iragarri ondoren, guztien
itxaropena da urteetako
masifikazio-arazoa behingoz
konpoduko duen eraikin
berriari argi berdea ematea;
aldiz, gurasoak mesfidati daude
hainbeste adabakiren ostean.**

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Sopelako Zipiriñe eskola publikoak urteak daramatza leku-arazoak pairatzen, Iker Elejabarrieta Ikasleen Gurasoen Elkarte (IGE) presidentaren hitzetan, «zentroan ez da ezta orratz bat gehiago sartzen». Arazoak aspalditik etorri arren, gurasoen pazientziak gainezka egin zuen 2017an jolastokian barrakoiak jarri zituztenean. Musika-gela eta liburutegia hartzen dituzten obretako egitura prefabrikatuak aldi baterako izango zirela azaldu zien Hezkuntza Sailak, baina sei urte geroago hor jarraitzen dute. Orain, Hezkuntza Sailak horiek kenduko dituela iragarri du, baina ez du zehaztu noiz izango den edo neurririk hartuko ote duen eskolaren *overbooking*-arazori konponbide bat emateko. Bitartean, gurasoek eraikin berria egiteko eskatzen jarraitzen dute, nahiz eta Hezkuntza Sailak egitasmoa bere aurreikuspenetatik baztertu. Hori 2021ean gertatu zen, orain, arazoa berrikusteko agindu zuten epea igarota, berriro batzartuko direla iragarri dute.

Bilera horren aurrean, gurasoen jarrera argia da: «Edo eraikin berria egiten dute edo ez, baina ez dugu adabaki gehiagorik nahi». Halaber, orain arteko Hezkuntza Saialaren itxikeriak estrategia argi bati erantzuten diola salatu dute: «Eskola publikoa kaltetzen ari dira inguruko ikastetxe pribatu eta itunpekoek mesede egiteko eta ikasleak horietara joan daitezen».

Gurasoek diotenez, Bizkaian ikasle gehien duen ikastetxe publikoetako bat da Zipiriñe: 925, gaur egun. «Ikasturteko bost lerro ditu eskolak, baina lau lerro izateko diseinatu zuten; gehienez, 40 ikasgela izan behar zituen, eta 44 ditu momentu honetan», azaldu du gurasoen ordezkariak. Horregatik, arazoarekiko axolagabekeriak jokatzeari leporatzen diete Eusko Jaurlaritzari: «Zipiriñe ez dago euren hezkuntza-plan estrategikoan, ez da haien kezketako bat».

Gurasoek argi daukate orain arte lortutakoa euren mobilizazio eta kanpainen eraginez izan dela, eta eskola berria erai-



kiko balute egindako presioagatik izango dela argi dute. Berbarako, 2019an leku barik geratu ziren jantokian, ikasle asko zerbitzu barik geratzeko arriskuagaz. «Umeek 20 minutuko txandetan bazkaldu behar zuten, eta hori ezinezkoa da», gogoratu du Maria Martinez IGEko kideak. Gurasoen kexen eraginez, Hezkuntza Sailak jantokia handitzea lortu zuten, nahiz eta horretarako ikasgela bat galdu. Arazoaren beste adibide bat da jolastokian estalita dagoen zatia hedatuko dutela, euria egiten duenean umeak patioan estalkietan pilatzen baitira. Hala ere, gurasoek ez daukate argi lanak nola egingo dituzten, berez gainezka dagoen jolaslekuari zati handi bat kendu behar diotelako, bai lanetarako, baita lanen materialak gordetzeko ere; beraz, beldur dira lanak hasten direnean umeak ez ote dituzten jolastorduan ikasgelan utziko.

MASIFIKAZIOAREN ERAGINAK. Gurasoek zentroaren leku-arazoak euren seme-alaben ikaskuntza-prozesuan kalte egiten diela errepikatu dute behin eta berriro. Adibidez, gurasoen elkarteko presidenteak kontatu duenez, gurasoak batu egin behar izan dira, besteak beste, informatika-gelarik edo laborategirik ez dagoenez, euren seme-alabei ikasgai horiek eurak eman ahal izateko. «Leku-arazoaren eraginez, 2 eta 4 urteko gelen arteko banaketa ere kendu behar izan zuten, baina adin horietako umeak nahastea ez da bateragarria metodologiarekin, eta horrek arazoak sortzen ditu», gaineratu du.

Hori gutxi balitz, COVID-19aren pandemian ezarritako segurtasun-distantziak betetzea ezinezkoa izan zen ikasleen sartu-irtean sarbideak kolapsatzen diren zentroan.

Leku-arazoek eragindako buruhausteei jolastokiaren egoera penagarria ere erantsi diote gurasoek: zabuak hondatuta, lurra zoladurarik gabe eta umeek euren garapenerako beharrezkoa duten adinako toki-falta. Hala ere, duela gutxi, Udalaren ardurapekoa den jolaslekuan okerrean zegoen eremua konpontzea lortu dutela jakinarazi du Elejabarrietak: «Gurasoak mobilizatu genituen, eta Udalari, alkateari eta zinegotziei bidalitako kexu masiboen eraginez lortu dugu behintzat hesiak itxita zegoen gunea egokitzea, umeak segurtasunez jolas daitezen».

Hala ere, deitoratu dute hori adabaki zerrenda luze baten parte bat bakarrik dela, Udalak 2021ean Goiene kalea itxi zueneko bezalakoa. COVID-19aren eraginez segurtasun-distantzia betetzeko neurria izan zen hori. Zabalbideko bizilagunek neurri horrek eragin dien eragozpena salatu dute, euren etxeetarako ibilgailu-sarbidea itxi diotelako



Gurasoek eta ikasleek hainbat mobilizazio egin dituzte eskolaren egoera salatzen. Gainera, Udala...

Sopelako biztanleriaren bilakaera



Grafikoa: HIRUKA Iturria: EUSTAT

Arazo puntuala
Eusko jaurlaritzak eraikin berria egiteko proposamena ez zuen bere inbertsio planean sartu, leku-arazoa «puntuala» dela argudiatuz. 2021ean bi urteko epea eman zuen matrikulazioen arabera proposamena berrikusteko.

eta 50 bat aparkaleku galdu dituztelako. Hori salatzen, Sopelako DB-TU alderdiak 100 sinadura inguru eraman zituen Udalaren osoko bilkurara eta Arartekoak adierazi du kalea eskolari ematea «irregularra» izan zela, ez baitago esku-hartzearen epea zehazten duen dokumenturik Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean. «Hala ere, kale hori berrezartzen badute eta estalkia hedatzeko lanak hasten badira, zer gertatuko da jolastokiagaz?», galdetu du gurasoen elkarteko presidentek.

BIZTANLERIA-HAZKUNDEA. Sopela eskualdean gehien hazi den udalerrietako bat da, zehazki, azken 20 urteetan % 23,6 hazi da udalerriko biztanleria, baina hezkuntza publikoko eskaintza ez da parean areagotu; hor dago koska. Gainera, hazkunde horrek jarraitu egingo duela aurreikus daiteke, Abaroko sektorean eraiki gura dituzten 600 etxebizitzaren proiektua bezalakoen eraginez.

Egoera horren aurrean, azken urteotan gurasoak arazoa bai ala bai konpontzeko borrokan aritu dira. Diotenez, «arazoa belaunaldiz belaunaldi pasatu da, baina guk gure seme-alabentzako eta etorriko direnentzako kalitatezko hezkuntza publikoa nahi dugulako



eko osoko bilkuretarra eta Legebiltzarrera ere eraman dute auzia.



2017an, leku-arazoei aurreko egiteko barrakoiak jarri zituzten jolastokian.

borrokan jarraituko dugu. Nekatuta gaude erakundeen konpromiso faltagatik». Horretarako, hainbat mobilizazio egin dituzte, eta Legebiltzarrera edo Sopelako Udaleko osoko bilkuretarra joan dira. Diotenez, argi dute norengana jo: Hezkuntza Sailarengana. Gaineratu dutenez, nekatuta daude, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean pilota alde batek bestera pasatzen egon direlako arazoaz benetan arduratu barik.

Horren aurrean, 2021eko urtarrilean, udalerriko alderdi politikoei bi proposamen aurkeztu zituzten Zipiriñerentzako: batetik, EAJk eraikina handitzeko proposatu zuen, Goienea kalea hartuz, eta, bestetik, EH Bilduk planteatu zuen Haur eta Lehen Hezkuntza eraikin berri batera eramatea. Azken proposamena onartu zuen gurasoen % 78k.

Martinezek azpimarratu duenez, eskatzen dutena ez da Sopelan ikastetxe berri bat egitea, Zipiriñerentzako eraikin berri bat baizik, oso gauza ezberdinak direnak: «Horregaz, arazoagaz behin betiko amaituko litzateke. Ez gaude prest arazoa luzatu besterik ez luketen adabaki gehiagorik onartzeko».

PROIEKTUA. EH Bilduk aurkeztutako aurre-proiektuak Loroñon eraikin berria egiteko

900

ikasle baino gehiago daude gaur egun Zipiriñen; Bizkaian ikasle-kopuru altuenetakoa da.

%78

izan zen eraikin berria egitearen alde bozkatu zuen gurasoen ehunekoa.

50

aparkaleku kendu zituzten jolaslekua hedatzeko Goienea kalea itxi zutenean.

2024

urtea ezarri zuen Hezkuntza Sailak arazoagaz zer egin erabakitzeko.

proposamena jasotzen du, Lemotza erreka eta Zabalbide kalearen artean, gaur egun aparkalekua dagoen eremuan, hain zuzen ere. Horretarako, 5.435 metro koadroko azalera duen lursail bat proposatu zuten, berdegune baten eta urbanizatuta dagoen kale baten ondoan. Proiektuak bi solairuko eraikina aurreikusten du, erreka ematen duen berdegune batez. Horrez gain, eraikinaren sotoan 110 plazako aparkaleku bat ere egiteko aukera ematen du proiektuak. Zentzu horretan, Udalak fitxa mugitu eta azaroko osoko bilkuran lursailaren arau subsidarioa aldatu zuen, eraikin berria egin ahal izateko.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzari proiektua aurkeztu ziotenean, horrek adierazi zuen ez zuela Hezkuntza Saileko 2019-2023 Inbertsio Planean sartuko, problema «puntuala» omen zelako. Era berean, Haur eta Lehen Hezkuntza eraikin bitan banatzea «esperientzia txartzat» ere jo zuten, eta 2024ra arteko epea eman zuen matrikulazio-erritmoa aztertu eta egingo zutena erabakitzeko.

Orain, Zipiriñeko gurasoak erabakiko denaren ikusmenean daude, baina aurreratu dute beraiek eraikin berria bakarrik onartuko dutela arazoaren konponbide gisa. ◀

Getxo Itzubaltzeta/Romoko Lope de Vega kaleko eraikinen eraisketa

Auzoa mobilizatzeko asmoa dute herritarrek

Ibar Nagusien Etxea elkarteak «gertu» ikusten du Lope de Vegako eraikinen eraisketa. Egoera horren aurrera, auzo-antolakunaz erantzungo dutela iragarri du.

Urtarrilaren 31n, Getxoko udal-langileek Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxea eta gaztetxea zirenak hustu zituzten. Ibar Nagusien Etxeko elkarteak sortu zituzten eta egoera onean zeuden dozena bat apartamentu hustu zituzten brigadako beharginek, eta elkarteko kideek euren bulegoko gauzak lonja txiki batera lekualdatu behar izan zituzten. Otsailaren 7an, berriz, Getxoko Udalak Lope de Vega kaleko 12 zenbakiko eraikina Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutan utzi duela jakinarazi zuen, belaunaldien arteko zentroa eraikitzeke urrats berri gisa.

Egoera ikusita, Ibar Nagusien Etxeko Paco Rama presidenteak deitoratu du Lope de Vegako eraikinen eraisketa «berehalakoa» izango dela, eta elkarteak manifestazioa deitu du otsailaren 12rako, goizeko 13:00etarako, Santa Eugenia plazan. Horrez gain, asanblada ezberdinak antolatu dituzte Itzubaltzeta/Romoko auzokideen artean, egoerari aurre egiteko pauso batzuk erabakitzeke. Talde horietako kide batek azaldu duenez, eraikinaren hustearen egunean, urtarrilaren 31n, bilera



Lope de Vega kalean eraitsi gura dituzten eraikinak.

Eraikinen etorkizuna

Getxoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak belaunaldien arteko azpiegitura bat sortuko dute Lope de Vegako eraikinak dauden lekuan. Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako 100 egoitza-plaza izango ditu, eta gazteentzako 40 zuzkidura-apartamentu ere, alokatzeko araubidean.

orokor bat antolatu zuten azken boladan desmobilizatua egon den jendeagaz berriro antolatzeke. Bere esanetan, 40 bat auzokide bildu ziren, eta oraindino behin-behieneko erabakirik hartu ez duten arren, auzoa berpizteko hainbat ekintza aurreikusten dituzte. Horien artean, Itzubaltzeta/Romo auzoko ibilbide historiko bat antolatuko dute: «Ibilbideagaz azaldu gura dugu zergatik eraitsi nahi dituzten Lope de Vegako eraikinak, zergatik diren gure ondarea, eta auzoaren sorreraren inguruko informazioaren berri ere eman gura dugu. Gure helburua da auzoa astintzea antolakuntza baliatuz». ◀

SANIKOLAS
IKASTOLA

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Getxo Toñi Ruiz, Jabier Gallaga preso algortarraren ama

«Jabiri ezarri dioten zigor luzea ulertzeko aukera bakarra mendeku hutsa da»

Arrigorriagan jaioa, Algortan bizi da Toñi Ruiz. 92 urte beteko ditu aurten, baina adinak ez dio trabarik jarri bere seme Jabier Gallaga espetxera bisitatzera joateko, milaka kilometro eginda ere.

Jabier Gallaga preso getxoztarrak 25 urte bete zituen espetxean joan den azaroan. Haren ama da Toñi, eta bere etxean hartu gaitu Mikel anaiagaz batera. Sukaldean lorez eta «bere tamainako besaulki» batez inguratuta dagoen txokotxora sartzeko gonbita egin digute. Zerbait hartzea eskaini digute: kafea, mistela, freskagarria... Dena ura izan ezik. Toñik barre egiten du, gogoratzen baitu bere aita bat-batean hil zela baso bete ur edan ondoren; hartara, ez du urik edaten, inoiz.

Jabier 25 urte baino gehiago daramatza preso, eta Espainiako eta Frantziako estatueta-ko espetxe ugari zapaldu ditu. Zein izan da bere ibilbidea? 1997ko azaroaren 26an atxilotu zuten Frantzian, eta 10 urteko zigorra izarri zioten. Kondenaren 3/4 bete zituenean Espainiara estraditatu zuten, Soto del Realera (Madrid). Bertan denbora gutxi eman zuen, Kordobara bidali eta isolamenduan sartu zuten arte. Ziega horiek erdisoto modukoak dira: ez dute zerua ikusten; ikusi ahal izateko, lurrean etzan eta leihotik alboz begiratu behar zuen. Egunean 22 ordu ematen zituen hor, eta bi ordu patioan. Batzuetan, baina, ez zen patio-ira irtetzen, baldintza haiek horretarako gogoak kentzen ziotelako. Halaxe ibili zen 15 urtez. Isolamendutik irtetean, gogorra egin zitzaion gainontzeko presoekin harremana izatea, eta ikusmenean ere ondorioak utzi dizkio. Orain, betaurreko bifokalak erostekotan gailtza.

Nola bizi izan duzu zuk, ama moduan, azken epaiketa eta ezarritako zigor hori? Azken epaiketan, gogoratzen dut surrealista zela. Epaiketa ikusten ari ziren Zuzenbideko ikasle gazteek ere haluzinatzen zuten fartsa horrekin. Kide batek torturapean egindako deklarazioak ziren haren aurka zuten frogak bakar-rra. Tortura kasu hori Estrasburgon epaitu dute, eta auzitegiak onartu egin du galdeketa hori tortura- eta tratu txarren -pean egin zela. Eta ez dut ulertzen Jabiri ezarri dioten zigo-



92 urte beteko ditu aurten Toñi Ruizek; eta inoiz ez du galdu semea bisitatzeko aukera.

Irteteko baimen-eskaerak ukatuta

«Bigarren gradu penintzentiarioan egonda, programatutako irteerak eskatu ditu, baita asteburukoak ere, baina, oraingoz, ukatu egin dizkiote»

Bisitak etxean egiteko aukera

«Ni espetxera joan beharrean, bera bisitan etortzeko aukera dago, 92 urte baititut. Ziurtagiri mediku bat eskatzeko aukera dauket, baina nahiago dut ez eskatu, ez dudalako Jabi eskuburdinak jarrita etortzea nahi»

rra hain luzea izatea, mendeku hutsagatik ez bada. Izan ere, Jabirekin batera atxilotu zituzten kideetako askok kondena bete dute jada, eta kalean daude. Ez da bidezkoa.

Milaka kilometro egin dituzu semea bisitatu ahal izateko urteotan... Mirentxin Gidariak bezalako ekimenek egindako lana asko eskertzen dut, eta beti izango dut gogoan. Ni gidariaren atzean esertzen nintzen, eta denek esaten zuten hori zela nire lekua. Bilbotik irten eta Kordobaraino joaten nintzen lo. Poliziak eta Guardia Zibilak egiten zizkiguten kontrolak ere gogoratzen ditut. Kontrol haiek izugarriak ziren: leku eta bazter guztiak miatzen zizkiguten eta dena hankaz gora jartzen zuten, ia beti goizeko ordu txikietan. Baina egoera horietan ere umorea mantentzeko gai ginen.

Gaur egun, Jabier Zaballako espetxean dago; zelan eragin dizu horrek? Lasaitasun handia da Jabi Euskal Herrian egotea. Hala ere, niri oso gogorra egiten ari zait; ez nuen inoiz antsietaterik izan Zaballara ekarri zuten arte. Hain gertu dagoela jakitea eta bisitatik alde egiten dudanean hor barruan utzi behar izatea ez dut baxterre ondo eramaten. Hiltzen ikusten dut neure burua. Orain bisitatzera noanean, batzuetan pilula hartu behar izaten dut antsietateagatik. Iruditzen zait berandu dela, denbora asko igaro dela, Jabik urte asko daramatzala giltzapean eta ni indarrrik gabe geratzen ari naizela. ◀

Leioa Lamiakoko dartsena inguruko hirigintza-plana

Lamiako eta Txopoetako bizilagunek uko egin diote hirigintza-egitasmoari

Azken hilabeteotan, Leioako Lamiako eta Txopoetako bizilagunak elkartzen aritu dira auzoan egin gura duten 1.200 etxebizitzako hirigintza-egitasmoaren inguruan eztabaidatzeko. Inguruko bizilagunei helarazi dieten idazki batean azaldu dutenez, auzoaren etorkizuna erabakitzeke egitasmoaren parte izan gura dute eta auzoa bere osotasunean hartuko duen egitasmoa aldarrikatu dute, «eta ez

Auzoaren etorkizuna

Lamiakoko dartsenaren HAPOn aldatzeko proposamena egin zuen Udalak, metroa lurperatu, etxebizitzak eraiki eta hezegunea berreskuratzeko.

bakarrrik eraikuntza-enpresei interesatzen zaien zatia».

Horregaz batera, besteak beste, Udalak proposatutako metroa lurperatzeko egitasmoa nahikoa ez dela diote, «halako obra egitekotan Leioatik Areetarako tarte osoa lurperatzea litzatekeelako egokiena».

Iragarri dutenez, euren aldarrikapenak entzun daitezen askotariko ekintzak egiten jarraitzeko asmoa dute. ◀

Leioa Energia

Ur Partzuergoak zentral hidroelektriko bat egingo du Kurkudin

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Leioan dagoen Kurkudiko ur-biltegiaren zentral hidroelektriko txiki bat egiteko asmoa iragarri du. Euren helburua da Dominotarren komentuaren ondoko ur-biltegiaren eta Arrigorriagako Venta Altako Edateko Uren Tratamendurako Estazioaren (EUTE) aretako altuera baliatzea uraren indarragaz energia elektrikoa sortzeko.

Horretarako, ia 660.000 euroko lizitazioa atera dute, eta 18 hilabeteko epea duten lanak nori esleitu dizkieten erabaki beharko dute orain. Momentuz, zehaztu dute zentralak Francis motako turbina izango duela, 126 Kw-ko gehieneko potentziagaz, eta urtean 830 MWh urtean sortzea espero dute. ◀



Aldekoenako parkea estaliko dute

Leioako Udalak Aldekoena auzoko umeentzako parkea estaltzeko lanak abiatu ditu. Esku-hartze horregaz, eremu publikoa hobetzen jarraitu gura dutela azpimarratu du Iban Rodriguez alkateak. 326.700 euroko inbertsioa suposatzen duten lanek lau hilabeteko iraupena izango dute. © LEIOAKO UDALA



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO
IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolenelkartea

Berango Kirol ekipamendua

Berangoko Iturrieta futbol-zelaia berritu du Udalak

Belar artifiziala, sare eta atea berritu dituzte.

Berangoko taldeak otsailaren 5ean estreinatu zuen zelaia, Retuerto Sport Taldearen kontrako partidugaz.

Berangoko Udalak joan den domekan, otsailaren 5ean, inauguratu zuen Iturrietako futbol-zelai berria, lurraldeko Lehenengo Mailako Berango eta Retuerto Sport taldeen partidugaz. Futbol-zelaian egindako berrikuntza askoren artean, iraganean zegoen belar artifizialeko zoladuraren ordeztarritako punta-puntako belar sintetikoak azpimarratu du Udalak.

Horrez gain, kirol-gune osoko kirol-ekipamendua ere berritu dute: atea, aulkiak, banderatzokak, harmailetak pintura, eta ureztatze-aspiersoreak. Halaber, perimetroaren segurtasuna hobetzeko neurriak ere hartu dituzte, eta futbol-zelaia inguratzen dituzten hesiak babesez estali dituzte.

Jarduera hori burutzeko, Berangoko Udalak 220.000 euroko inbertsioa egin du, eta abenduan ekin zituen berdegunea berritzeko lanak; beharrok urte hasiera honetan bukatu dituzte, eta berrikuntza obrak 7.060 metro koadro inguruko eremu batean egin dituzte. Horretarako, asfalto-oinarriaren azpiegitura, argiztapena eta drainadura aprobetxatu dituzte. Etorkizunerako, Berangoko Udalak Ki-




Berangoko futbol taldea Iturrietako futbol-zelai berrituan. © BERANGOKO UDALA

Segurtasuna
Berritutako instalazioen artean, Udalak futbol-zelaiko segurtasuna indartu du zelaia inguratzen dituzten hesiak babestuz.

rolguneke instalazioak hobetzeko lanetan ere martxan jartzeko asmoa du.

Berango eta Retuerto Sport izan ziren futbol zelaiko instalazio berriak partidu batean probatzeko aukera izan zuten lehenengo taldeak, eta euren arteko lehiak gol banagaz bukatu zuen.

Bestalde, partidua hasi baino lehen, Berangoko alkate Anabel Landak egin zuen ohorezko sakea, modu horretan, zelai berria modu ofizialean estreinatu. Gainera, hori baino lehen, alkateari udal-agintarien eta klubeko arduradunen aurrean auresku bat dantzatu zioten. ◀



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa

www.anderdeuna.eus

ander deuna
IKASTOLA

Gure hizkuntza proiektua ezagutu nahi baduzu...

Jarri gurekin harremanetan!

Berango Udala**Berangoko partaidetza bidezko aurrekontuen bigarren fasea, zabalik**

Berangoko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea martxan jarri dute. Aukeratu beharreko proiektuak hurrengoak dira: jolas-eremu naturalizatua sortzea irakaslearen parkean; hiri-altzariak instalatzea eta berritzea: paperontziak, bankuak eta iturriak; etxeko animalien bizikidetzari buruko kontzientziazio-kanpaina abiatzea: kartelak, komunikazioa, eta gorozkietarako paperontziak; autokarabane-tarako aparkalekuaren proiektua; espaloiak behe-ratu eta oinezkoen pasabideak hobetzeko kanpaina; aparkaleku-eremua egokitzea elizarako eta udaletxerako sarbideetan; eta pixatoki publiko bat jartzea. ◀

Plentzia Isuskitza**Epaitegiak errepidea konpontzeko agindu dio Plentziako Udalari**

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 4 zenbakiko Epaitegiak nahitaezko be-tearazpena igorri du Plentziako Udal-lak Isuskitza auzunera doan errepidea konpon dezan. Errepideak 2016tik darama itxita «segurtasun arrazoiengatik», nahiz eta bertako bizilagunek erabiltzen jarraitzen zuten. Itsasadarren ondotik Isuskitza urbanizaziora doan errepidea pribatua izan arren, erabilera publikokoa da, beraz, Plentziako Udala hori konpontzera behartu dute epaileek. ◀

Urduliz ELA sindikatuaren mobilizazioa**Osakidetzak langileen eskubideak urratzen dituela salatu du ELAk**

Otsailaren 3an egindako elkarretaratzean, sindikatuak azpimarratu zuen Osakidetzako langileen % 58a behin-behinean ari dela lanean: «Europako tasarik altuena da».

ELA sindikatuak elkarretaratzea egin zuen otsailaren 3an Osakidetzaren «kontratazioaren iruzurra» salatzen asmoz. Hala, eguerdiko 11:30ean, legea betetzeko eta lanpostu finakoak sortu eta egonkortu ditzatela aldarrikatu zuten. Izan ere, deitoratu zuten Osakidetzan lanean dauden % 58a behin-behinean ari dela lanean; halaber, besteak beste, salatu zuten «iruzurreko lanpostuak» daudela.

ELA sindikatuak azpimarratu duenez, Osakidetzako langileen behin-behinekotasun tasa oso altua da, «neurrigabea, eta oso larria». Deitoratu du Osakidetzak behin-behineko kontratazioak egiten dituela egiturazko funtzioak betetzeko eta, horren ondorioz, langileek ez dutela egonkortasunik. Gainera, gogoratu du Osakidetzak plaza-kode batzuk sortu dituela orain gutxi, «lanpostuak egonkortzeko EPEa egiteko bete-beharraren eta Estatutu Marko berria indarrean sartzearen ondorioz». Hala ere, sindikatu-

ko kideek salatu dute lege hori ez dela bete, plaza horiek, behin-behineko langileek betetzen ari zirenak, «ez baitira nahikoak egiturazko beharrak betetzeko».

Hori dela eta, ELA sindikatuak azpimarratu du beharrezkoa dela Osakidetzak aitortuta dituen lanpostuak baino gehiago egiturazkoak bihurtzea, eta lanpostu horiek egonkortzea. Izan ere, Urdulizko ospitalean egindako azken elkarretaratzean bildutakoek jakinarazi zuten, Osakidetzak Europar Batasuneko behin-behinekotasun tasarik altuena ei du, «% 50etik gorakoa».

Egoera horri aurre egiteko, Europako erakundeek eskatu zuten Administrazio Publikoko ahalik eta aldi baterako enplegu gehien fin-katzea, behin-behinekotasuna % 8ra murrizteko. Era berean, sindikatuak gogoratu zuenez, Estatutu Markoa aldatu egin da, osasun-sektorean aldi baterako kontratuak egiteko modua arautu eta kontratazio-iruzurrari muga jartzen diona. ◀



GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



ARANTZA ETXEBARRIA
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Gorliz Juan Manuel Goikoetxea *Motores*

«Udalerriak bizi izan duen bilakaera erakutsi dut liburuan»

Gorliz de ayer y hoy izena du Juan Manuel Goikoetxearen, Motores ezizenagaz gehiago ezagunaren, hirugarren lanak. Otsailaren 11n aurkeztuko du publikoki, Sertutxenan, Patxi Gale eta Mikel Lopez-Horgue ikerlariakaz batera.



Askotarikoen laguntza izan du *Motoresek* liburua osatzeko. HODEI TORRES

Bere jaioterriaz maiteminduta dagoen pertsona horietako bat da ingurukoek *Motores* bezala ezagunagoa duten Juan Manuel Goikoetxea. Horren erakusgarri da urteotan idatzitako bi liburua: *Para el recuerdo*, *Gorliz* eta *El sanatorio de Gorliz, 100 años*, eta orain trilogia horri batu-ko zaion hirugarrena; *Gorliz de ayer y hoy*. Otsailaren 11n, 12:30ean, Gorlizko Sertutxenan aurkeztuko du orain urtebete eta erdi abiatu-tako lan hori, eta bertan azalduko duenez, tokiko eta inguruko aditu askoren laguntza jaso du liburua osatzen duten «zuri-beltzezko eta koloredun argazkiez osatutako» 250 orrialdeak betetzeko. «Askotarikoek lagundu didate zeregin honetan: irakasle bat, tabernari bat, familia bat... Liburu hau horiena ere bada; izan ere, euren komentarioekin eta argazkiekin lagundu didate Bizkaiko Foru Artxiboa

aurkitutako informazioa osatzen», azaldu du Goikoetxeak.

Liburuaren titularrak dioten bezala, «lehengo eta gaur egungo Gorliz biak alderatzen ditut». 60ko hamarkadan oinarritu da batez ere, hirigintza aldetik udalerriak goitik beherako aldaketa bizi izan zuten. «Garai hartan, tokiko base-riak eta txaletak galdu eta etxebizitza-blokeak agertzen hasi ziren. Garaiko batek ez luke gaur egungo Gorliz ezagutuko», dio egileak. Hala ere, bestelako gaiak ere landu ditu liburuan, hala nola Asoagan, Billa-no irlaren aurrean, topatutako dinosauroen aztarnak, Mandañuko Historiaurreko aztarnategia, eliza-ren ondoko nekropolia, eta tokiko itsas-gizonen kontakizunak, besteak beste.

Guztira, 200 liburu argitaratuko ditu, eta 20 euroan saldu, Lighthouse tabernan, batzokian eta La Moderna denda, Sertutxena ondoan. ◀

Euskarari atera kontuk!

JOANES ATXA OLAIZ



Gaurtik aurrera, aiko-maiko nahiko!

Zeinen ilusio handiz hartzen dugun hizkuntza berri bat ikasten hasteko une hori. Zeinen kementsu eta itxaropentsu, eta hitz berriak ikasteko zeinen gogotsu. Zeintzuk dira, baina, hizkuntza berri bat ikasterako orduan lehenbizi eta erraz-erraz ikasten ditugun hitzak? Biraoak.

Bai, ez gaitezen ezkuta, denok dugu gustuko beste hizkuntzetako ele txarrak ikastea, debekuaren morboak eraginda, nerabe gineneko barrabaskeriak gogoan. Izan ere, lepoa jokatu nuke hizkuntza guztietan emankorrak direla biraoak. Euskaraz ere bai? Bai, euskaraz ere bai. Nahiz eta askoren ahotan entzun izan dugun euskaraz madarikazioak botatzeak ez duela beste hizkuntzetan bezalako indar eta kemenik, «tuntuna» eta «kaikua» hitzetatik harago, euskara gaizto bat badago. Gure eskualdean bereziki originalak izan gara eta bagara gaizki esaka aritzeko, eta ni, behintzat, oso harro nago. Edozein egoeratan onura ateratzen dakien horri, gizarte arauak zer agintzen duten ezer gutxi axola zaion horri: «aprobetxategi» deitzen diogu. Aski ezaguna da, gure inguruetatik at ere hedatu baita berba hori. Eskolan, etxerako lanak txakurrak jan egiten zizkidala esaten nion maiz irakasleari, eta ni bezalakoei «aiko-maikotan» ibiltzen garela esaten zaie; hau da, aitzakiak asmatzen. Baina inolako zalantzarik gabe, Uribe Kostan dugun biraorik dotoreena honako hau da: «aldestaio!». Hala esaten zaie lana ganora gutxiarekin egiten duten horiei, gogorik gabe eta erdizka. Bere garaian, R.M. Azkuek gaztelaniazko «*al destajo*» esamoldearekin lotu zuen... baina batek daki. Horiek ikasita, beraz, ez daukagu aitzakiarik euskaraz gaizki esaka ibiltzeko. Nahikoa da aitzakiak asmatzeaz, gaurtik aurrera, aiko-maiko nahiko! ◀

URIBE KOSTA Agate Deuna Ospakizunak utzitako irudiak

Eskualdeko kaleak kantuz bete dituzte

Ohiturari jarraituz, makilak hartuta eta hitzordurako behar bezala jantzita, ehunaka herritar atera zen Agate Deunaren bezperan, otsailaren 4an, Uribe Kostako kaleetan santu siziliarrari abestu eta eskupekoa batzeko. Bertan egoterik izan ez zutenentzako, eta gainontzekoentzako ere, HIRUKAk egun horretako irudi batzuk ekarri ditu orriotara.








Duela lau urte sortu zen UK Foto elkarteak Uribe Kostako 41 argazkizale biltzen ditu gaur egun, baina kopuru hori hazi baino ez da egiten antolatzen dituzten hainbat jarduereri esker: Argazki Rallyak, tailerrak, erakusketak, Argazkilaritza Jardunaldiak... Hemen duzue kideetako batzuen argazki-galeria. Taldean parte hartzeko gogoakaz bazaude edo tailerren eta erakusketen berri edukitzeko, jo euren webgunera:

www.ukfotoelkartea.org





Follow the rainbow. ESTI MARTIN



Urkiola. FERNANDO SALCEDO



Hostoz hosto. ALBERTO NALDA



Egunsentia Bizkaian. MARINA ARENAZA



Udaberria. ANTIXON ALVAREZ



Zubia. ANGEL MARIA CEREZO



Lasaitasuna hautsiz. BEGO BELON



Gaztelugatxe argien bidean. AGUSTIN ETXEBARRIETA



Esne bidea. IÑAKI DIEZ



Udazkeneko natura hil. LUIS LABEAGA



Basajaunen domeinuan. ALFREDO BENGOA



Kaioen kastroa. JESUS PEDRERO



Karola. RICARDO VAZQUEZ



Ilunabarrari begira. JAVIER PARIS



Herri kirolak. OSCAR MERINO



Elkargunea. JON GOMEZ



Otzarreta. ANDER MORENO



Egunsentia «Cabo mayor» itsasargian. EDER SEARA



Ur gortinak basoan. SARAY MURCIANO



Azkorri, ametsetako txokoa. EDUARDO JOSE ORTIZ



Unai Aranzadi Gerra-kazetaria

«Boteredunek kontrolatzen dute narratiba»

Getxoztarra sortzez, Stockholmen (Suedia) bizi da egun Unai Aranzadi (1975). Azken hamarkadetan lau kontinentetan (Asia, Amerika, Europa eta Afrika) aritu da lanean, tokiko gatazkak eta gerrak kontatu guran. Urtarrilean, baina, 2021eko udagoienera Ginea Bissau, Gambia eta Senegal barnealdetik grabatutako dokumentala aurkeztu zuen Algortan: *A costa dos Lançados*. Bidaia aprobetxatuta, beragaz batu gara bere ibilbide luzeaz aritzeko.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: HODEI TORRES · UNAI ARANZADI ►

Gerra eta gatazka-gune batean baino gehiagotan ibilitako heteranoa zara. Bizi izandako guztietatik, zeinek eragin dizu gehien? Politikoki, Kolonia; hala ere, gaur egun, Ukraina dela esango nuke. Izan ere, uste dut kazetaritzaren amaiera ikusten ari garela, gatazka hori kontatzeko moduagatik. Hedabideek esaten dute gerra egun batetik bestera hasi zela, pertsona baten gutziagatik. Hala ere, horren atzean hasiera bat dago: Maidan. Ni bertan egon nintzen, eta sekuentzia osoa ezagutzen dut. Mendealdeko hedabide eta politikariek iraultzat jo zuten 2013-2014ko mugimendu hori, baina, teknikoki, estatu kolpe bat izan zen: alderdi komunista eta beste dozena bat alderdi legez kanpo utzi zituzten, eta, Ukraina 130 gutxiengo etniko baino gehiago dituen herrialde plurinazionala izanda, horien guztien kontrako legeak indarrean jarri zituzten. Gainera, ezkutatu nahi duten arren, bidea eman zieten talde neonazi eta ultraeskuindarrei errusieraz hitz egiten zutenen edota ijitoen kontra egiteko. Egia da talde horiek ez direla gehiengo Ukrainan, baina haien gorroto-diskurtsoa nagusitzea lortu dute.

Kazetaritzaren amaiera ikusten ari garela diozu; zergatik? Erabat bihozgabea iruditu zaidalako gaiarekiko sortu den histeria ikustea, inolako kazetaritza-lanik egin gabe; dena da propaganda, nik «Bidenen gerra» deitzen dio-



Hamaika gatazkatan ibilitakoa

«Gerrilla asko ezagutu ditut, eta asko gustuko dut jende hori. Izan ere, oso gutxiarekin, estatu bati edota boteredunen kontra egiteko gai direlako. Asian, Amerikan, Afrikan... Hamaika lekutan egonda nago».

dan gatazka honen zergatiak eta konplexutasunak ulertzeko batere zentzuzko hausnarketarik egin gabe. Ondorioz, ezinezkoa da benetako kazetaritza-ariketa bat egitea gatazka hau ondo kontatzeko, ez dagoelako lekurik horretarako.

Bidenen gerra... Orain ezagutzen dugun gerra hasi zenean ukrainarrek errusiarrekin negoziatu nahi izan zuten: Bielorrusiaren hegoaldean egin zuten inbasioa hasi eta lehenengo astera, eta ondoren, Turkian. Baina, Joe Biden AEBetako presidentea atoa hegazkin bat hartu eta Europara etorri zen Volodimir Zelenski Ukrainako presidentearekin batzeko eta negoziaketak bertan behera utz zezan eskatzeko. Hala ere, nik uste dut, arinago edo beranduago negoziaketa bat egon beharko dela, egoera jasanezina delako.

Histeria aipatuta, Errusiaren inbasioa hasi zenetik hona badirudi jendea gatazka nola-bait ahaztuta edo bigarren maila batean utzi duela. Jendeak gerrarekiko sentsibilizazioa galdu al du? Agian oinarrira bueltatu gara, 2014 hartan bezala, Janukovitxen kontrako estatu kolpetik herrialdearen ekialdeko gerra hartara, nolabait ahaztuta zegoena, gutxi erakartzen zuena. Badirudi berdina gertatzen ari dela orain. Kievek bonbardaketak jaso zituen hasieran, baina orain, gutxi gora behera, lasai dago inguru hori. Dena dago jokoan

ekialdean; gerra han dago. Nik ez dut ukatzen Errusiaren inbasioa, argi eta garbi inbasio bat izan delako, baina Donbass aldean gertatzen ari dena beste gauza bat da. Izan ere, bertako biztanleriak ez zuen bat egin Maidaneko estatu kolpearen ondoren adostutakoarekin.

Nazioartekotu den gerra zibila aipatu duzu inoiz. Nondik dator, bada, gatazka honen oinarria? Ukrainako ekialdeko herritarrek ez zuten independentzia nahi Maidaneko kolpearen ondoren, eta Errusiak ez zuen nahi horiek bere egin. Herritarrek autonomia moduko bat aldarrikatzen zuten, betiere Ukrainaren barruan; errespetua eskatzen zuten, eta ez zuten onartzen estatu kolpea. Hala ere, Mendebaldeko agintariek erabaki zuten prozesu hori guztiz blokeatzea, eta, ondorioz, gaur egungo gerra kronologia zehatz baten emaitza da; nire ustez, planifikatutako gatazka bat da.

Gainera, Mendebaldeko agintariek bazekiten unerren batean Errusia baztertuta sentituko zela, eta badakite Errusiak gogor erantzuten duela beti. Ni Txetxeniako gerran egon nintzen, eta aurrez aurre Kadyrov ezagutzeko aukera izan nuen. Badakit zelan pentsatzen duen jende horrek, argi zegoen gogor oldartuko zirela, eta hala izan da.

Ukrainako gatazka 2014tik ezagutzen duzu; ordutik, joan-etorrian ibili zara. Zelan bizi dituzu halako egoerak? Niretzat oso triste da. Azken bidaia Kievera egin nuen, tokiko jendea trenetan ihesi zebilela. Ni bi seme-alaben aita naiz, eta nire enpatia beti dago herritarren alde, sufritzen dutenen alde. Oso gogorra zen ikustea emakumeak eta umeak trenak hartzen eta gizonak bertan gelditzen derrigorrezko erreklutamenduagatik. Hala ere, esan bezala, frustrazioa da gehien sentitu dudana. Kazetaritzak lagundu beharko luke gatazka baten sekuentzia osoa kontatzeko eta arazoari amaiera emateko; eztabaida pizteko. Baina, kasu honetan, hori ez da egon, eta oso triste da. Nire kasuan, ikusi dudana hitz egin dut; morteroen erasopean lan egin dut, eta jendea ebakutzen lagundu dut. Hori dena grabatuta daukat; euren azalean jarri naiz. Baina, neonazien edo talde ultraeskuindarren inguruan hitz egiten duzunean, edota Zelenskiren ustelkeriaz ere, jakinak direnak, errusiarren eta Putinen aldekoa zarela entzun behar izan ditut. Ondorioz, eztabaida horren pobrea eta kaskarra da erdiragarria dela. Oinarritzko sen onaren, politika-aren eta kazetaritzaren amaiera da.

Kazetaritzaren ikuspegitik, zer botatzen duzu faltan Ukrainako kasuan? Nik uste dut gatazka honek beste alde batetik kontatzeko

Dokumentalen indargunea

«Dokumental batek beti du izaera iraultzaile bat, denbora duelako. Gaur egun, gizartean badirudi dena arina izan behar dela, 140 karakteredunak edo minutu batekoak. Hori dela eta, horri aurre egiteko aukera bat da dokumentala, baina horiek gizarteratzeko aukerak bilatzean dago gakoa»

Lan pertsonalagoak egiteko grina

«Orain arte, askatasun osoa izan dut lan egiteko, baina beti enkargu bati lotuta. Momenturen batean, zerbait pertsonalagoa egitea gustatuko litzaidake, tokikotasunetik hasita zerbait unibertsalagoa jorratuko lukeena, eta Euskal Herria oso egokia da horretarako»

Hedabideen mekartuari aurre egin guran

«Nik medio publikoen funtzio sozialean sinisten dut; horiek garrantzitsuak dira, eta beharrezkoa da ondo finantzatuta egotea, kalitatezkoak eta ahalik eta independenteenak izateko»



Unai Aranzadi kazetariak 2014tik darama Ukrainako gatazka

beharra duela, eta ez naiz errusiarren ikuspegiari ari, baizik eta ukrainarren beste aldeaz. Zelenskik dioenean Donbass eta Krimea Ukraina direla, orduan, bere herrikideen kontra ari da, orain hainbat urte egin izan duen bezala. Eta hori da gakoa; gerra zibil gisa hasi zen, ukrainarrak ukrainarren kontra. Ondoren, bai, Errusia eta Wagner taldeko mertzenarioak sartu dira, baina hasiera atzetik dator. Horregatik, nire ustez, kazetaritzak hori dena kontatu beharko luke, hasieratik.

Agenda mediatikoa, baina, interesek markatzen dute. Zeren arabera? Kazetaritza merkata da, negozio bat da, eta kazetariak gatazka-guneetara bidaltzea ez da merkea. Orduan, nork kontrolatzen du narratiba? Bada, bidalketa horiek egiteko dirua daukatenek, eta horiek ez dute asmorik gauzen ordena edo statu quo aldatzeko. Hedabide horien helburua da gauzak bere horretan mantentzea.

Espiralean batean gaude, Ukrainaren kasuan ikusi dugu hori, baina baita pandemian ere. Ikus dezakegu nola berdin duen zein hedabide kontsumitzen duzun, kontatzen ari dena, oinarria, berdina delako ia guztietan.

Pesimismo horren ondotik, baina, zergatik erabaki zenuen gerra-kazetari izatea? Nik uste nuelako egia, benetakoa, gerran aurki-



jarraitzen, zuzenean. Argazkian, Donbassen. © UNAI ARANZADI

Neokolonialismoa
«Afrikarrek herrialde duinetan bizitzea merezi dute, Afrika errespetatu beharra dago, ipar-hego erlazioetan bi aldeetarako onurekin. Gaur egun, akordio horiek behartzen dute jende asko migrazioa jotzera, nahiz eta horiek gutxiengoa izan herritarren artean»

Laguntza publikoa izan duten lan guztiak publikoari itzultzen dizkio Unai Aranzadik, interesdunek online ikusteko aukera izan dezaten.

tuko nuela modu oso agerikoan. Baina guztiz kontrakoarekin egin dut topo. Gerran, esaten den bezala, «lehenengo biktima egia da».

Horrez gainera, historia lehenengo pertsonan bizi nahi nuen, baina egoismoetatik aldentuta. Gerora konturatu nintzen «Bang-Bang» delako horrek ez dituela istorioak kontatzen, are gutxiagoa frontearen egonda, eta, denborarekin, ikasi dut kontatu beharrekoa atzean dagoela. Momenturen batean, nahiko nuke ikusitako hori guztia ikuspegi pertsonalago batetik kontatu ahal izatea, liburu edo dokumental formatuan.

Logistikoki, zelan egiten duzu lan gatazka-guneetan? 20 urte nituela, Gazan (Palestina), gogoratzen dut hedabide garrantzitsu bateko talde handi bat ikusi nuela eta nire buruari esan niola: «Egunen batean medio horiekin guztiakin bidaiatu ahal izatea nahiko nuke». Bada, 25 urte baino gehiago pasa dira, eta lehen bezain txiro jarraitzen dut lanean; ekipaje arin batekin, baina metatutako esperientzia guztiarekin. Garrantzi handia ematen diot aurreko dokumentazio-lanari; joango naizen herrialdearen nondik norako guztiak jakitea gustatzen zait. Bestalde, mundu-mailan hainbat hedabide ditut zerrendatuta, ia bat ere ez Estatu espainolekoa, badakidanak lanen bat eros diezadaketena. Halaxe funtzionatzen dut.



A costa dos Lançados

«Paradoxa da gaur egun beste lançatu batzuk daudela, XXI. mendekoak, ibilbide bera egiten dutenak, baina alderantziz, askotan pariatzat ere hartzen direnak, pobrezia-egatik. Kanariar Uharteetako bide arriskutsuenetik eta gehien hazten ari den bidetik iristen dira Europara, ogia irabazi eta euren egoera etsituari irtenbide bat bilatzeko».

Zeren arabera erabakitzen duzu istorio bat edo beste kontatzea? Zerbait garrantzitsua dela uste dudalako egiten dut lan. Seguruenik, inori ez zaio axolako gaia, eta ozeanora mezu-dun botila bat botatzea bezala izango da, baina egiten dut garrantzitsua delakoan. Badaude leku batzuk amorrutik beteta joan naizela, hala nola 2003an Ugandara; gatazka izugarria izan zen, umeak bahitu eta soldadu bihurtzen zizutuz horietakoa. Gaia jorratu eta hainbat hedabide handitan argitaratu nuen. Horri esker, ahaztutako gerra hura agerian jarri nuen.

Ahaztutakoak, ala ikusezinak? Bai, hori da. Izan ere, ahazteko, lehenago ezagutu beharra dago, eta mota horretako istorioak ez dira ezagunak. Are, merkatuan minaren agenda delakoa dago, eta hedabideek merkatu horren beharrei erantzuteko lan egiten dute, ez gizartearen onurako. Ukraina, adibidez, orain mintzen gaitu, baina lehen, orain zortzi urte, ukrainarren armadak Donetseko 200 ume hil zituenean, non zegoen haien mina?

2001ean, Independent Docs ekoizpen etxea sortu zenuen. Zelan laburtuko zenuke proiektu horren ibilbidea? Eginari aurre eman beharra dago, kar kar. Hala ere, aitortu beharra daukat nahi izan dudana egin eta esateko aukera izan dudala, baina kostu profesional handi baten truke. Nazioarteko hedabide handiekin lan egin izan dut, baina jaten ematen zidaten horiekin borrokalari jarri nintzen. Ez nuen bat egiten medioen narratibarekin, batzuetan zikina zelako zelan jorratzen zuten gai jakin bat, eta hori kritikatzeko hasi nintzen.

Urtarrilaren 14an, zure azkenengo lanaren aurrestreinaldia egin zenuen Getxon: A costa dos Lançados. Zertan datza dokumentala? Migrazio-mugimenduaren iraganari eta orainari buruzko paradoxa erakutsi nahi izan dut. XV. mendean, Espainia eta Portugaldik kanporatutako judutarrak ziren mendebaldeko Afrika beltza esploratu zutenak, behartuta, Inkisiziotik ihesi. Orain, 500 urte beranduago, beste gizagaixo batzuk bide bera egin behar izaten dute, baina kontrako norabidean, txalupetan gurera heldu nahian. Gehien hazten ari den migrazio-bidea da, eta munduko hilkorrena da. Hildakoak badakizkigu, baina are gehiago desagertzen dira. Hala ere, hainbat gai jorratzen ditut, hala nola kolonialismoa, esklabotza, giza eskubideak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desberdintasun-harremanak, ustelkeria, Afrika beltzeko migrazio-arazoaren sorrera, baina ez itsasoko salbamenduan arreta jarritz, baizik eta Europarako bidaiari ekitera bultzatzen duen horretan. ◀

Otsail-Martxoa

Barrika

Inauteriak

Otsailak 17, barikua

18:00 Umeentzako tailerrak, Ander Deuna kultur aretoan.

Otsailak 18, zapatua

18:00 Disko-festa, Ander Deuna kultur aretoan.

Berango

Inauteriak

Otsailak 17, barikua

21:00 Rolling Stones taldearen omenezko kontzertua, frontoian.

Otsailak 18, zapatua

18:00 Kalejira Berangoetatik pilotalekuraino, Auskalo taldeagaz.

19:00 Disko-txiki, umeentzako musika.

21:00 Le Blond taldearen disko-kontzertua.

Erandio

Inauteriak

Otsailak 17, barikua

18:00 Kalejira eta inauterien jaia, Altzagako kaleetatik.

18:00 Erandioigoan kalejira: trikitia, panderoa, batukada eta buruhandiak.

20:00 Trabudu Dantzari Taldearen Dantzori ikuskizuna, Astrabuduan.

22:30 Kontzertua: Akerbeltz, Astrabuduan.

Otsailak 18, zapatua

11:00-18:00 Umeei eta familiei zuzendutako ekintzak, Mendiguren plazan.

15:00 Inauterietako bazkaria, Altzagan.

17:00 Kalejira eta Boliviako dantzak, Altzagan.

18:30 Astrabuduko inauterietako lehiaketa.

21:30 Kontzertua: Lost in Covers, Mendiguren plazan.

23:00 Erromeria: Urrats, Altzagan.

23:00 Kontzertua: Lowe Band, Erandioigoan.

Otsailak 19, domeka

12:00 Erandioigoikoko moztorro- eta tostada-lehiaketak eta umeentzako jolasak, Euskadi plazan.

Getxo

Itzulbatzeta/Romoko inauteriak

Otsailak 18, zapatua

12:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak, kalejira eta moztorro-lehiaketa.

19:00 Kalejira musikatua, erraldoi eta buruhandiakaz.

21:30 Irrintzi-lehiaketa; ostean, DJ Bengalitas.

Algortako inauteriak

Otsailak 24, barikua

17:30 Umeentzako jarduerak, San Nikolas plazan.

18:00 Areatxu fanfarrea herriko kaleetan; bukatzean, Algortako maketa-lehiaketa.

Otsailak 25, zapatua

12:00 Kalejira musikatua, buruhandiakaz eta erraldoiakaz.

15:00 Kuadrillen moztorro-bazkaria, San Nikolas plazan. Ostean, desfilea eta lehiaketa.

21:00 Kontzertua: La Takonera, Kasino plazan; Amezti inguruan: Gau berezia.

22:30 Moztorro-txapelketako sari-banaketa.

Otsailak 26, domeka

11:30 Umeentzako tailerrak San Nikolas plazan; ostean, euskal inauterien desfilea.

Andra Mariko inauteriak

Otsailak 27, astelehena

11:30-13:30 Kalejira, dantza-erakustaldiak eta umeentzako jarduerak, Malakate inguruan.

Otsailak 17, barikua

Bertsolaritza: 22. Abra Saria

19:00 | Azebarri kultur gunean

Bertan arituko dira Euskal Herriko sei bertsolari gazte: Ander Sarriugarte, Irantzu Idoate, Peru Irastorza, Maddi Aiestaran, Beñat Astiz eta Maddi Agirre.

Otsailaren 23tik 27ra

Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival

Muxikebarrin

Euskal Herriko eta nazioarteko surf pelikulen emanaldiak eta askoz gehiago.

Otsailak 25, zapatua

Silver Film Festival

10:00-22:00 | Romo Kultur Etxean

Adineko pertsonak erdigunean izango dituen Euskadiko lehenengo jaialdia egingo dute Getxon.

Gorliz

Inauteriak

Otsailak 17, barikua

11:00 Gorlizko eskolako kalejira, Elexalden.

Otsailak 18, zapatua

17:00 Umeentzako inauterietako jarduerak, Eliz plazan. Iluntzean, inauterietako disko-festa, Elexalden.

Otsailak 19, domeka

11:00 XIII. Inauterietako Tostada Txapelketa, Ibarreta plazan.

18:30 Euskal inauterien kalejira-ikuskizuna.

Leioa

Otsailak 15 eta 16

Mendi Tour 2023

19:00 | Kultur Leioan

Mendi Film Festival-eko pelikulen proiektzioak.

Inauteriak

Otsailak 18, zapatua

17:00 Puzgarriak, Errekalde plazan.

19:00 Dantza-saltsa familientzako ikuskizuna eta txokolate-jana, Aketxe plazan.

21:30 Nagusientzako moztorro-jaia, Ikea Barri plazan.

23:00 Erromeria: Garilak 26z, Ikea Barri plazan.

Otsailak 21, martitzena

11:00 Umeentzako parkea eta Pepa eta Kutxo pailazoaren ikuskizuna, Kandelazubieta kiroldegian.

18:00 Umeen XXVIII. Moztorro Lehiaketa; ostean, sari-banaketa.

Plentzia

Otsailak 15, eguaztena

Berbaldia: Kontsumoa

19:00 | Goñi Portalen

Hizlaria: Jose Ramon Bezerra.

Otsailak 16, eguaztena

Antzerkia: Oparia, klown misioa

18:00 | Goñi Portalen

Familiarentzako pailazo-ikuskizuna.

Otsailak 17, barikua

Plentziako eskolako inauteriak

11:00 | Plentziako eskolan

Otsailak 25, zapatua

Plentziako XIV. Inauteri

Tematikoak

Plentziako jai batzordeak eta Plentziako Kuadrillek antolatuta. Gaia: Fantasia.

Sopela

Inauteriak

Otsailak 18, zapatua

14:00 Kuadrillen herri-bazkaria, udaletxeko plazan. Ostean, jolasak eta playback, Jauregizarren.

21:00 Kontzertuak: La topadora eta Oxabi.

Otsailak 21, martitzena

16:30 Urgitxieta plazatik kiroldegira kalejira egingo dute; bukatzean, disko-festa eta moztorro-lehiaketaren sari-banaketa.



Lehenengo kontsulta eta ekografia doan.

Zain barneko laserra: barize lodiak desagerrarazteko teknika

Hanaketako barizeen arazoarentzat konponbideren bat aurkitzen saiatu diren gizon-emakumeek hainbat tratamendu egiteko aukera topa ditzakete gaur egun, baina, halere, zalantza ugari izan ohi dituzte ezer egin baino lehen.

KIRURGIA EDO SAFENEKTOMIA. Kirurgia tradizionala edo safenektomia, guztien artean, tratamendurik erasokorrena da. Anestesia orokorra edo errakideoa behar du, eta baita hainbat egun iraun dezakeen susperraldia ere. Gainera, berriro ateratzen diren barizeen indizea % 20koa da.

N BUTIL ZIANOAKRILATO - ITSASGARRIA. Itsaskorra, N Butil Zianoakrilatoa, tratamendu bereziki egokia da barize gutxi dituzten pertsona gazteentzat. Bigarren aukerako tratamendua da, bost urterako emaitza onak erakutsi dituzten ikerketen bermea du baita ere, zain barneko laserrarekin lortzen diren emaitzak hobeagoak baitira.

ESKLEROSIA APARRAREKIN. Ekografo bidez zuzendutako aparra edo esklerosia aparrarekin zain lodi gaixoen alaben tratamendurako teknika aproposa da. Tratamendu hau safe-na zainentzat ere aproposa da, baina barizeak berriro agertzeko aukera kontutan izan behar da; izan ere, aparrarekin tratatutako zainen % 40a berriro agertzen da.

Gomendagarria da baita ere ebakuntza egin duten eta berriro barizeak dituzten pertsonentzat, kirurgia berriro ere ez badute egin nahi.

ZAIN BARNEKO LASERRA. Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen da safena zainetako gutxiegitasunak eragindako barize arazoarentzat. Horretan bat datoz hainbat nazioarteko mediku-erakundek.

Horrek esan nahi du beste tratamenduak baino lehenago gomendatzen dela, barizeak berriro agertzeko aukera gutxi daudelako, erasokortasun baxuko tratamendua delako (klinikatik oinez ateratzen da eta bizimodu ia normala egin daiteke) eta ebakuntza-ondokoa oso arina delako.

Laburbilduz, zain barneko laserra Dermiteken emaitzarik onenak izaten ari den tratamendua da. Izan ere, klinikan 2.900 kasu tratatu dituzte 2010etik, eta barize kasuen % 99,6 berriro ez agertzea lortu dute. Eta zer gertatzen da berriro agertzen badira? Dermiteken bermea eskaintzen dute: tratatutako barizea lehenengo urtean berriro agertzen baldin bada, berriz tratatuko dute, kosturik gabe.

P.S.E. 92/21



DERMITEK
Uribarte pasealekua 11-12
48001 BILBO
 (Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona
 944 010 110

Astelehenetik barikura:
 8:30-20:00

Zapatuetan:
 9:00-15:00



Lehen/Orain **Leioako** erdialdea, 80. hamarkadaren hasiera



ITURRIA: LEIHOA.INFO



Uribitakora



TESTUA
Nahikari Ayo
Acebo

DOINUA
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Hodei Torres

Jubila(k)zioa

Hamaika txosten, mila bilera
hau da saturazioa!
Askotan lana bihurtu ohi da
bizitzaren fikzioa.
Esperientziak ematen digu
sekulako lezioa.
Goza dezagun, garaia heldu da
has dadila akzioa!
Merezitako unea hemen da:
kaixo jubilazioa!

Goizetik esna, karroa hartu
ta ikastolara loba.
Plaiarak jantzi Galearaino
paseoa dugu moda.
Eta arrastian, kontsultaren zain,
nik ez dakit zenbat froga...
Egutegia topera dago,
bihar zer tokatuko da?
Erretiroa hartu ondoren
soberan ez da denbora.

Arratsaldean astean baten
joaten ohi gara parkera,
denok batzean izan ohi dugu
hitz egiteko aukera.
Gure agendek bat egitea
oso zaila egiten da:
gure ilobak, bazkari txango...
beti batetik bestera.
Hitzorduren bat lortu nahiz gero
mezua_igorri guatxapera.

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Nize

«Egia da gure erreferentzia asko 90ekoak direla»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

ARGAZKIA: NIZE ▶

Gela zuri baten barruan begiak ireki eta paretetako koadroekin bat datozen 90eko hamarkadako doinuak pixkanaka esnatu naute, inguruan ikusten nituen irudietan burua galtzen nuela. Gaurkoan, gurean, artea eta musika bazten dituen proiektua dugu: Nize.

Nortzuk zarete Nize, eta nondik zatozte?

Nize Arte Ederretan elkar ezagutu zen hirukotea da. Fakultatea urte berean hasi eta elkar ezagutu ginen. Hasieran, musika egiteko elkartzen ginen pare bat gitarrekin, baina denborarekin horrela itxi dugu gure formazioa, baxua, gitarra eta bateriarekin. Bilboko hirukotea garela esaten dute, baina, berez, Donostia, Artzentales eta Azkoitikoak gara.

Hain gazteak izanda, egiten duzuen musikak 90eko hamarkadako influentzia handiak ditu, zer dela eta? Gaur egungo musika ere entzuten dugu, kar kar, baina egia da gure erreferentzi asko 90eko hamarkadakoak direla. Musika estilo desberdinak entzuten ditugun arren, elkarrekin musika egiterakoan gure soinuak kutsu hori gordetzen du nolabait.

Oso proiektu berezia sortu duzue; musika aldetik zein alde artistikotik, oso landutako lana da zeuena. Zer influentzia du hori? Gure testuingurua oso konkretua da; momentu honetan, Bilbon mugimendu asko dagoela esan daiteke musika eta artearen munduan. Horrek denbora guztian lanean egotera behartzen gaitu, gauzak konpartitzera, eta inguruan daukagun jendearengandik asko ikasten dugu. Nahiz eta erreferente asko izan, ez dugu estilo konkretu bat bilatzen, eta horregatik influentzia oso ezberdinak nahastuz sortu dugu musika da.

Badirudi Euskal Herrian betiko punk eta rock doinuetatik aldentzen ari garela, eta urteak daramatzagu oso estilo ezberdinetara jotzen. Zeren eragina dela uste duzue? Musika entzuteko era guztiz aldatu da azken



Disko berririk?

Oraingo, lasai gabiltza disko berria prestatzen eta, aldi berean, atera berri dugun diskoa oraindik mugitzen. Pixkanaka kantu berriak egiten ari gara, baina datorren diskoa mimo handiz egin nahi dugun lana da, eta, printzipioz, urtebete luze emango dugu datorrena prestatzen merezi duen bezela.

hamarkadetan. Orain, Interneten bidez edozein musika estilo entzutea posiblea da, eta munduko edozein tokiko eszena lokalak ezagutu ditzakegu. Fenomeno horrek inspirazio iturri guztiz berriak ekarri ditu gure lurraldera.

Gainera, gero eta errazagoa da musika egitea, ordenagailu bakarra behar baita. Horrek erraztasun asko eskaintzen ditu, hala nola eramangarri bat edozein tokitara eraman ahal izateak. Sumatzen da, halaber, denok oso konektatuta gaudela. Lehen, askoz testuinguru zehatzagoa zegoen, orain, ordea, gauza gehiago ditugu eskura, musika estilo gehiago, lan egiteko modu gehiago...

Azkenaldian sarri entzuten dugu astebururo plan musikalki ugari daudela, eta egia da kontzertuen agenda leporaino dagoela. Zer uste duzue? Eskertu beharra dago plan alternatiboak egiteko aukera izatea. COVID-19ak sortu zuen egoerak erritmoa berreskuratzen ez zuen lagundu. Azken aldi honetan, aldiz, nabaritzen dugu berriro ere dena martxan dagoela eta mugimendu asko dabilela. Horren ondorioz, jendearen lana ezagutzea errazagoa da, eta pozik gaude berriro ere kontzertuak emateko aukera dugulako. ◀

Ane NARBARTe Lasa eta Maddalen ARISTEGI Sanchez Loregorriko sortzaileak

«Zientziaren izenean egin diren sarraski askok oraindik gure gorputzak zikintzen dituzte»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Ane NARBARTe Lasa eta Maddalen ARISTEGI Sanchez oiartzuarrak dira Loregorri proiektuaren sortzaileak, «ziklizidadea eta hilekoa askatasunez bizitzea» helburu duen egitasmoa. Euskal Herri osotik euskarazko tailerrak emateaz gain, haiek ekoiztutako konpresa ekologikoak ere saltzen dituzte Internet bidez. Urtarrilaren 25ean, Getxon izan ziren «Gure bulbak dekolonizatuz» izeneko tailerra ematen, eta HIRUKATik euren egitasmoaren nondik-norakoak ezagutzeko aukera izan dugu.

Nola sortu zenuten Loregorri proiektua?

MADDALEN ARISTEGI SANCHEZ: Nik psikologiako gradua Argentinan egin nuen, eta bertan bizi nintzenean hilekoaren inguruko proiektu bat garatu nuen. Orduan, ikastaroak egiten hasi nintzen, eta gaiaz asko ikasi nuen. Euskal Herrira bueltatu nintzenean, Aneri komentatu nion hilekoa euskaraz landu nahi nuela, eta galdetu nion ea proiektuaren parte izan nahi zuen. Izan ere, Ane eta biok eskolatik ezagutzen gara eta beti oso harreman ona izan dugu.

Hiru urte pasa dira proiektua hasi zenutetik. Nolakoa izan da bidea?

ANE NARBARTE LASA: Loregorri 2020an jaio zen, konfinamendu garaian, eta horrek bidea zaildu du. Hala ere, oso harrera ona eduki du proiektuak. Behin konfinamendutik atera ginela, konturatu ginen jendeak horrelako ikastaroen go-goak zituela. Guk gabezia horretatik lan egin dugu, ikusten dugulako beharrezkoa dela hilekoaren eta ziklizidadearen inguruan hitz egitea. Bestalde, proiektua era batean hasi zen, eta beharren arabera aldatzen joan da.

Urtarrilaren 25ean, «Gure bulbak dekolonizatuz» tailerra antolatu zenuten Getxon. Zehazki, zer lantzen duzue tailer horretan?

M.A.S.: Ikastaro honen helburua da gizar-tetik heldu zaiguna mahai gainean jartzea. Zientziaren izenean egin diren sarraski askok gure gorputzak zikintzen dituzte. Gure asmoa da konturatzea zenbat kolonizatzaile-izen ditugun gorputz menstrualetan, eta zenbateraino ezagutzen dugun gure gorputza edota besteona. Lotsak eta beldurrak nondik datozen aztertzen ahalegintzen gara, eta pen-



Loregorriko sortzaileak. © ANE NARBARTE LASA

«Guk gabezia batetik lan egiten dugu, ikusten dugulako beharrezkoa dela hilekoaren eta ziklizidadearen inguruan hitz egitea»

ANE NARBARTE LASA
LOREGORRIKO SORTZAILEA

«Konpresa ekologiko batek bost urte irauten ditu, beraz, gure salmentak badu erritmo berezi bat»

MADDALEN ARISTEGI SANCHEZ
LOREGORRIKO SORTZAILEA

tsamendu horiek guztion artean kolektibizatzen ditugu.

Nori zuzenduta daude tailer horiek? A.N.L.: Gorputz menstrualei zuzenduta daude. Ez dago adin konkreturik, baina gazteak gehiago azaldu dira, zehazki haiengana zuzenduta egon diren tailerretan.

M.A.S.: Badaukagu tailer bat bereziki guraso edo tutoreei zuzenduta dagoena. Egia da gehienetan amak etortzen direla, baina gure generoa gorputz menstrualak dira; hori argi uzten dugu.

Tailerrez aparte, denda ere duzue. Zer produktu saltzen dituzue horretan?

A.N.L.: Momentu honetan, konpresa ekologikoak saltzen ditugu. Guk geuk ekoizten ditugu, eta horrek guk nahi ditugun oihalak eta diseinuak erabakitzeko askatasuna ematen digu.

M.A.S.: Konpresa ekologikoak saltzen ditugu ikusi genuelako Loregorriko proiektuan gorputza presente egoteko modu bat zela. Gainera, ekonomia zirkular eta ekologikoan sinisten dugun heinean, kontsumo eta zabor gutxiago sortzea da gure asmoa. Konpresa ekologiko batek bost urte irauten ditu, beraz, gure salmentak badu erritmo berezi bat. ◀

QR kodea eskaneatuz
gero, elkarrikketa osoa
irakurtzeko aukera
izango duzu.




Lucia Astigarraga Eszena zuzendaria

«Nire lehentasuna da hemen lan egin ahal izatea»

Akisgranen (Alemania) dabil egunotan getxoztarra, bertan *Manon* opera klasikoa taularatzeko prestaketa-lanetan. Hala ere, *Galerna* ikuskizunaren estreinaldirako bueltatuko da.

IKER RINCON MORENO ►

Alemaniaiko Akisgran hirira bueltatu da Lucia Astigarraga eszena zuzendari getxoztarra, han Massenet-en *Manon* opera prestatzera. Apirilaren 2an estreinatuko du, eta bi astean behin taularatu, ekainera arte. XIX. mendeko lan klasiko hori gaurkotu duela dio, baina hori Alemanian aurkeztu aurretik, Bilbora bueltatu egingo dela aurreratu du, joan den urtarilaren 15ean Kultur Leioan aurre-estreinatutako *Galerna*, azken bidaia ikuskizun



Lucia Astigarraga, Leioa Kantika Koraleko kantariakaz lanean. © DAVID AZURZA

musikalaren estreinaldi ofizialerako, hain zuzen. Leioa Kantika Koralek batera egin-dako lana da hori, eta martxoaren 19an taularatu dute Bilboko Arriaga Antzokian, Loraldia jaialdiaren barruan. Astigarragak dioenez, urtarileko emankizunetik hainbat kontu egokitu beharko dituzte emanaldi handirako, «ez direlako gauza bera Kultur Leioa eta Arriaga Antzokia; bigarrenak espazio handiagoa du, eta baliabide tekniko gehiago. Beraz, lana egokitu beharko dugu hori dena aprobetxatzeko eta guztiari etekina ateratzeko». Dioenez, daborduko sarrera gehienak salduta daude Bilboko estreinaldirako, «eta ez da harritzekoa, Leioako Kantika Koralek oso lan ona egiten du, eta Basilio, zuzendari musikala, izugarria da. Luxu bat da niretzako haiekin lan egitea», aitortu du getxoztarrek. ◀



**BILBON,
MARTXOAREN 9TIK 26RA**

LORALDIA FESTIBALA!

2023

MAILUA GARA!



Eskuratu sarrerak
loraldia.eus-en



Babesleak:



Zinez diot **Nope**

Begiradak gurutzatuz

Normalean, zinemak etiketatzen zailak diren istorioak kontatzen ditu. Kasu honetan, esango nuke zientzia fikzioak eta beldurak filma ureztatzen dutela.

INIÑO ESTEBAN LEZKANO ►

Entzunda badugu ere, gizakiok norbere buruan ikertu eta ikasi behar ditugu gauzak, hazi eta gure kabuz erantzunak aurkitzeko. Egia da horrek esperimentzia eta ezagutza handia ematen digula, baina etsipena eta sufrimendua ere ekar diezaguke. Oro har, berdin dio zer kontatu edo erakusten digun beste edonork, hobeto ulertzen dugu dena gure barnean sentitzen dugunean. Jakitea egiten jakitea da. Hori agerikoa bada ere, gaur hizpide dugun film honetan kontrakoa izango da, espero ez dugun zeozer aurkezten digulako nolabait.

Beldurrezko film klasikoen askotariko topikoez baliatzen da, eta «serie-b» itxura izan lezakeen premisa bati heltzen dio, baina, gau-



Nope

Jatorrizko izenburua:

Nope

Zuzendaria: Jordan Peele

Gidoilariak: Jordan Peele

Antzezleak: Daniel Kaluuya, Keke Palmer, Brandon Perea, Steven Yeun, Terry Notary

Iraupena: 130 min

zatze egokiari esker, zentzua du. Fantasia eta beldurra, itxuraz, filmaren zati txiki bat besterik ez dira, astiro askatuz. Tonu mantendu eta lasaia du, tentsio uneetan gorantz eginez eta animaliekin kanalizatzaile gisa, zoritxarra laguntza bihurtuz.

Jordan Peelek *Nope* (2022) sinatzen du, hainbat generotan bildutako beldurrezko film bitxi eta entretenigarria, hodeien antzera goratzen dena. Esperientzia faltaren aurrean buru argitasuna erabili behar dugula erakusten duen begirada desberdina. ◀

Irakurrian **Bisita. Ata Pank eta Ate Punky**

Barre algara bat baino gehiago, ziur

Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi xamarrek, Bernardo Atxagak sortutakoak.

PAMIELA ►

Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi xamarrek. Bernardo Atxagak sortutako, eta Mikel Valverdekin maisuki ilustratutako, pertsonaia berri horiek barre ugari eragingo diete irakurle txiki.

Lehenengo liburuan, *Ata Pank eta Ate Punky*, zooko lehoi beldurgarri bati aurre egin behar izan zioten, ustekabeko emaitzarekin. Ondoren, *Desioa* izeneko liburuan, hiriko ahate horiek antzara basatien saldoekin bat egiten saiatu ziren hegoaldeko paradisuak ezagutzeko asmorekin, baina... Zer gertatu ote zen? Hirugarren honetan, lerrootara ekarritakoa eta *Bisita* izenburua daramana, aha-



Bisita. Ata Pank eta Ate Punky

EGILEA: Bernardo Atxaga

ARGITALETXEA: Pamiela

Urtea: 2022

Orrialde kopurua: 64, koloretako ilustrazioak

Jatorrizko hizkuntza: Euskara

te «xelebre» hauek txakur txiki bat ezagutuko dute. Hala, bere lagun Neloren iloba dela jakiten dutenean, elkarri galderak egiten hasiko dira: zer egiten du Nelotxo honek? Nondik dator? Eta, batez ere, nora doa? Hori guztia jakiteko gure heroiak espioi bihurtuko dira... Abentura horretan murgildu nahi baduzu, ez galdu aukera liburu ilustratu eder honekin.

EGILEEN DATU GEHIAGO. Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951) idazle-lanetan hasi zenetik, beti izan du gogoan haurrentzako eta gazteentzako literatura. Horien artean, honako tituluak aipa genitzake: *Ramuntxo detektibea*, *Chuck Aranberri dentista baten etxean*, *Asto bat hypodromoan*, *Jimmy Potxolo*, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sara izeneko gizona*, Markoniren eta Bambuloren serieak, Xola txakurrarena...

Mikel Valverde ilustratzailea, berriz, Gasteizen jaio zen, eta oraingo honetan ekarritakoaz gainera, haurrentzako beste hainbat liburu eta bilduma ilustratu ditu, hala nola *Xola*, *Bambulo*, *Jonas*, *Garmendia*...



Agustin Bilbao

Joan da 2022ko **Bertsolari Txapelketa Nagusia**. Itsasoan urak handi dira, murgildu nahi dutenentzat. Txapelketaz harago, oster, bada **bertsogintza** apalagorik. Bada eta bazen. Gatozen handitik txikira. Euskal Herritik eskualdera.

Fredi Paiak liburu eder batean bildu zituen 1900etik 1980ra arteko Uribe Kostako **bertsolaritzaren** lekukotasunak. Izenak, datak, bizipenak. Mila kontu txiki. Baina euren txikian, handi. Hizki larriko bertsogintza hizki xehetan hasten baita.

Liburu horretan irakur daitekeenez, bertsolari mota bat dago, oso garrantzitsua bertsolaritzaren ekosistemarako. Mota horretako bertsolariak ez dituzu **bertso jaialdi** handietan protagonista ikusiko. Baina **bertso saioa** amaitutakoan, hor ibiliko zaizkizu bertsotan non egingo.

Taberna zuten berezko esparru, eta Franzisko Kaiero bertsozale getxoxtarrak *bigarrentxuk* deitzen zien **herri bertsolari** prestuoi. Aski zen **puntu** bat botatzea eurak ziren tokian, bueltan bertso zaparrada jasotzeko. Elkarri txanda hartu ezinik ibiltzen ziren, behin kantuan hasitakoan.

Agustin Bilbao Berrojalbiz (Loiu, 1917- Erandio, 1969) Loiuko Zabale baserriko semea halakoxea genuen. Jose Luis Bilbao garai hartako herri kirol-proba antolatzailearen esanetan «Agustin Zabalekoa bertsolari polita eta zorrotza zen, batez ere esaeratan eta bertso laburretan; antzinako erara egiten zuen bertsotan». Orduko Jose Dobaran *Unbe* eta Pedro Castrejana *Castre* bertsolariekin sarri kantatzen zuen.

Lehengo aldian Agustin zenaren seme-alabekin izan nintzen Leioako Ondizen elkarriketa goxoan, eta euren ahotik jakin nuen zenbaterainoko bertsozaletasuna zuen haien aitak: «horreek han ibiltzen ziren bertsotan goxalderarten» esan zidan Juan Agustin semeak; «eta gortan entrena, egun duztin kantaten gortan» erantsi Garbiñe alabak; eta Juan Agustinek jarraitu «nire aite defuntu sarriten bakarrik barrunte izen dot berbaz, entrenaten edo...»; «baie nire aiteri kosta ite'akon kantaten hasikeran; kopatxu bet emote iotsen ta besta bat, eta besta bat, eta ordun hasten zan ha, libreti».

Santa eskean ibili gara oraintsu kopla zaharrak eta bertso berriak etxerik etxe kantatzen. Bada hala ibiltzen ziren Agustin Bilbaoren moduko herri bertsolariak ere, euren garaian. Zorionez, katea ez da eten, eta gure eskualdean gaur gaurkoz ez dago herri bertsolari faltarik. Gora bigarrentxoak! ◀

Berba azoka

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Euskal Herri mailako bertsolari txapelketarik garrantzitsuen, Bertsozale Elkarrekin antolatua eta lau urterik behin jokatzen dena.

Bertsogintza

Bertsoak botatzea (ahoz) edo jartzea (idatziz).

Bertsolaritza

Euskal herri-literaturaren adarra, bertsolariari eta bertsogintzari dagokiena.

Bertso jaialdi

Bertso saio handiari esan ohi diogu; oro har, lau bertsolari baino gehiagok hartzen dute parte, eta gai-jartzaile batek gidatu ohi du.

Bertso saio

Bat-bateko bertsoak botatzen diren ekitaldia.

Herri bertsolari

Herri edo eskualde mailan aritzen denari deitzen diogu, hau da, profesionala ez dena eta herrialde mailarako jauzia eman ez duena.

Puntu

Erimadun bertso zatia.



1) Agustin Bilbao, herri bertsolaria. 2) Agustin eta haren andre Elisabete Zarraga. 3) Agustin, andrea eta alaba Garbiñe. JOSEBA SANTXO

Leize Zuluaga eta Eider Elorrieta Berango-Urdulizko Eskubaloï Taldeko jokalariaik

«Klub honetan betidanik sustatu dute emakumeen berdintasuna»

Berango-Urduliz Eskubaloï Taldeko kideek argi dute konfiantza dela euren oinarri nagusia. Hala, euskara eta berdintasuna ere egunero taldean presente dauden gaiak dira.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Taldean 16 kide dira, eta astean hiru egun entrenatzen dituzte; bi egun, Urdulizen, eta bat, Berangon. Nahiz eta joan den denboraldia oso ondo ez bukatu, aurtien salto handia eman eta hirugarren postuari heldu diote. Aurtien konfiantza gehiago dute euren buruengan, eta hori emaitzetan islatzen dela azaldu du Elorrietak. Gainera, bi jokalariek azpimarratu dute taldean oso giro ona dagoela, eta horrek guztia errazten duela. Partidu onez gainera, partaide aktiboak dira herriko emakumeen berdintasuna eta euskara sustatzeko ekintzetan: iaz, martxoaren 8an, Urdulizko emakumeen berdintasunaren ibilbidean parte hartu zuten, eta Euskaraldian, arigune ere izan ziren.

Elorrietak azaldu duenez, martxoaren 8an, Emakumearen Egunean, berdintasunaren aldeko hainbat esaldi idatzi zituzten, horrela, Urdulizko ibilbide morea osatuz. «Klub honetan betidanik sustatu dute emakumeen berdintasuna: Urdulizko ibilbide-morean parte-hartzeaz gain, hainbat tailer egin ditugu gaia lantzeko», argitu du Zuluagak. Halaber, gaineratu dute, orokorrean, kirolean «asko» nabaritzen dela emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasuna, futboleko, batez ere. Hala, nahiz eta euren klubean berdintasuna bermatuta egon, garrantzitsua ikusten dute talde moduan horrelako ekimenetako partaide izatea.

Euskarari dagokionez, Euskaraldiko ariketa ondo joan zela baieztatu dute; beti euskaraz aritzen ahalegintzen direla azaldu dute jokalariek, baita partiduetan puntuak euskaraz ospatzen ere. «Euskara sustatzea ardura



Berango-Urdulizko Eskubaloï Taldeko kideak. HODEI TORRES

Euskaraz

«Norbaitek euskaraz ez badaki laguntzen saiatzen gara»

handiko gaia iruditzen zaigu, eta norbaitek euskaraz ez badaki, laguntzen saiatzen gara», adierazi du Elorrietak.

Horri lotuta, nagusienak izanda, badakite euren klubeko 5-6 urteko umeen eredu direla, eta horregatik, horrelako ekimenetan parte hartzea «ezinbesteko» ikusten dute. «Modu horretan, ume txikiek ikusiko dute garrantzitsua dela, adibidez, euskaraz berba egitea», azaldu du Zuluagak.

Beraz, jokalariek argi dute denboraldiko hurrengo partiduetan irabazten jarraituko dutela, betiere, euskararen eta berdintasunaren eskutik. ◀

Pedro Gutierrez Getxo Irristan klubeko entrenatzailea

«Gure ustez, neska-mutilak elkarrekin jokoan aritu daitezke adinotan»

Besteak beste, 8-15 urte arteko neskengan oinarritzko kirola sustatzeagatik, Iberdrola Supera Base saria jaso du Getxo Irristan Patinaje eta Hockey klubak. Gainera, Berrituz aitortza ere jaso du Getxo Sasoi-Sasoian sariketan.



8 eta 15 urte arteko neska-mutilek osatzen dute kluba. HOEDEI TORRES

IKER RINCON MORENO ►

Algortako Fadura kiroldegiko frontoietan entrenatzen dute Getxo Irristan klubeko kirolariak; 8 eta 15 urte arteko neska-mutilak dira, denak batera nahastuta, patinen gainean eta sticka eskuan. Pedro Gutierrez entrenatzaileak dioenez, hockeyan mutil gehiago aritu ohi dira, baina hori iraultzeko lanean ari dira, eskola-garaian, nesken artean zale-tasuna hauspotu guran. Hala, talde mistoak dituzte, euren arabera, «arazorik gabe elkarregaz aritu daitezkeelako, mutilen eta nesken talde propioak izan ditzakegun arren». Guztira, 100 kirolarik osatzen dute kluba, baina eskola eta domekako familia-saioakaz batera, 200 bat ki-dek osatzen dute Getxo Irristan. Gutierrezek zehaztu duenez: «2016an ekin zion bideari klubak, 20 jokalaria genituela. Garai hartan, nekez eraman genituen aurrera bi talde, bai-

na, orain, zenbakiok ikusita, gauzak ondo egiten ari garenaren emaitza dela uste dugu. Oso pozik gaude».

Horren erakusgarri dira, besteak beste, hilabeteotan jasotako sariketak: Iberdrola Supera Base eta Getxo Berrituz. Lehenengoak nesken artean oinarritzko kirola sustatzeko lana aitortu dio klubari, eta, gainera, 50.000 euroko laguntza jaso du talde gisa hazten jarraitu ahal izateko. Izan ere, Gutierrezek azaldu duenez, inoiz ez dute erregelamenduzko hockey-zelairik izan; ordez, frontoian egokitutako pista bat dute, sarea dagoen aldean hesi bat jarrita. «Jokalaria txikiagoak zirenean, baliozkoa zen, federazioak onartzen zigulako bertan jokatzeari; neskamutlak nagusitu ahala, baina, ordezkoak behar izan ditugu». Hala, egun, Jolaseta Klubak utzitako zelaian jokatzen dute, baina, Getxo Kirolak eta jasotako diru-laguntzari esker, laster, eurentzako pista propioa izango dute, Faduran bertan. ◀

Hasi eta hazten jarraitu

NEREA GARCIA LISTE Haszten



Kirola, gizarte-erakitzaile gisa Erandion

K irol-jokoak eta jolasak gizartearen isla dira (Etxebeste, 2006), eta horrek esan nahi du gizartearen baloreak kirolean murgilduta daudela. Kirol egokituaren hiriburuak modalitate egokitu eta espezifikoaren arteko ekitatea sustatu nahi badu, kirolarien praktika-aukerei erreparatzea ezinbestekoa egingo zaio. Ildo horretan, esan beharra dago aniztasun funtzionala duten pertsonen bizitza independentearen foroaren manifestuak «gu gabe ezer ez» esaldia duela lelo gisa. Hortaz, ezer egin aurretik, protagonistei galdetzea derrigorrezko proposamen bezala gaineratzen dut.

Erandio-Altzagako kiroldegian Bocciako zortzi zelai inguru daude marraztuta, eta horrek, hasteko, bereizgarritasun nabarmena ematen dio, desgaitasun espezifikoak dituzten kirolarientzat sorturiko Boccia eta Goalball bezalako kirolak praktikatzeko zelaia zaila direlako normalki kiroldegietan ikustea. Baina, eremu horiek hastapena sustatzeko ahalmen ikaragarria dute, kirol egokituaren esentzia argi irudikatzen dutelako.

Hortaz, kirol egokituaren hiriburuak bereizgarria izan behar duela argi dago, eta Joko Paralinpikoetara joango diren kirolariei baliabideak ematea helburu eztaba daezina da. Baina, momentuz, hasiberria den errepide honetan duintasunez jarraitzeko ez dira «argi luzeak» amatatu behar, helburu nagusia oso argi definiturik eta beti begi-bistan edukitzea beharrezkoa baita. Izan ere, goi mailako kirolariak argira ateratzen direnean, kirol egokituaren hiriburuak ezin du ahaztu gizarte mailako lorpen handiena hastapeneko parte hartzearen sustapena dela, kirolak gizartearen ispilu izateaz aparte, eraikitzaile ere izan daitekeelako. ◀

Uff-aren teoria: nekea eta haserrea

UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune feminista



Lolita Chávezen UFFaren teoria dakarkizuet gaur hona. Abya Yalakoa, emakume lurralde-defendatzaile eta sendatzailea, iheslaria; gurean izan denean, UFF esan ohi dugula ohartu zen. Gainera, hasperen horrek lagunak goibeldu eta aztoratzen zituela sentitzen zuen.

UFF horien atzean energia asko joaten zitzaigula iruditu zitzaion, lehen gogoetan. Berehala, ondoeza, nekea, heldu ezina, gainezka egotea, haserrea adierazten zuela ondorioztatu zuen, ezer onik ez, hain zuzen.

Zer dago UFF horien atzean? Horrela laburbildu dit: (UFF) hasteko, gure bizitzan edozer egin behar dugula planifikatzean (buru-nekea sumatzen hasten gara), gauza gehiegi egin gura izateko joera baitugu; (UFF) ondoren ere, agendari begiratu zer eta noiz egin dezakegun aurkitu eta, beste batzuekin baldin bada, unea adostea ere ez zaigulako erraza (nekea areagotzen zaigu, agendak gainezka ditugu eta heldu ezinak itotzen gaitu); (UFF) hirugarren fasean, dena delakoa egitea dagokigunean. Ondo joan bada, tentsioak gozamenaren eragozten digu, eta planifikatu bezala atera ez bada, baliteke haserretzea, etsitzea, gaixotzea.

Eta gu, bitartean, bizitzak erdigunean jartzera goazela aldarrika. Ai ene!

Erronkak

IRAIDE JUARISTI AGIRRE LAB Eskumaldea



Kontrolatuta omen dago KPIa, gutxieneko soldata igo dute, pentsioak eguneratu dira... Baina inork antzeman du aldaketarik? Bizitza duin bat izatea gero eta garestiagoa da: Soldatek izoztuta jarraitzen dute, eta gure eros ahalmena gero eta murriztagoa da. Gure denbora eta izerdiarekin sortutako aberastasuna banatzeko borondaterik ez dute patronalek. Zerbitzu publikoak eta babes soziala gero eta pribatuagoak eta prekarioagoak dira.

Partzez partxe, sostengaezina den sistema eutsi nahian dabilta Madrilen. Hemen, bitartean, gobernuak begira daude, jakin arren eskumena dutela zerga sistema moldatzeko, gastu publikoa handitzeko, zerbitzu publikoak eta zaintza sistema sendotzeko, soldata minimoa igotzeko edo pentsioak osagarritzeko.

Zera proposatzen dugu: 1.400 euroko gutxieneko soldata, 1.080 euroko pentsioak ezarri eta eros ahalmena ez galtzeko KPIaren arabera eguneratu; zaintza, energia, etxebizitza, elikagaiak eta oinarriko sektore estrategikoak kontrolatu, publikatu eta merkatutik atera; zerbitzu publikoak indartu eta gastu publikoa igo, negozioa egin beharrean denon beharrianak asezeko. Horretarako, gehien duenak ekarpen handiagoa egin dezala, zerga sistema justuago bat ezarriz. Badago aukera.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Orrazkera berriaz erabat aldatuta zaude; ikusten da zure itxura zaharragaz nazkatuta zinela eta moldeak apurtzen saiatu zarela.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Beti berba eta berba zabiltzanez, ezin zaitu inork jasan; monologo hutsa da zurea, eta horrek guztiak zoratu egingo zaitu.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Siestatxoia egiteak on egiten dizula badakigu, baina, aizu, bizitza ohean egitea ere! Alferrontzi ederra eginga zaude.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Asteburu batean pertsona ezezagun batezag egingo duzu topo, bion arteko erakargarritasuna handia izango da, eta ezkonduko zarete.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Gorrotatzen duzun auzokideagaz borrokatzea ez du merezi. Kasurik ez, eta azukrea uretan urtzen den bezala kenduko zaizkizu buruko minak.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lo gutxi egiten duzu, arrazoia zeuk jakingo duzu. Atsedena jarraian hartzea behar-beharrezkoa da.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Laster susto eder bat datorkizu; gaitz fisikorik ez da izango, baina abisu bat izan daiteke... Arretaz ibili, beraz.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Hezur bat apurtzeak izorratuko zaitu; zure planak bertan behera geldituko dira, beraz, presta zaitez igeltsuaren laguna izateko.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzea ez zenuke txartzat hartu behar. Baretu ezazu zure izpiritu lehiakor hori.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Espero zenuena laster ala berandu iritsiko da, baina ez zaitez hain urduri jarri. Gauza bakoitza bere unean etorriko da, ikusiko duzu!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lasai motel, oraingoa ez da zure sasoirik onena, baina maite zaituztenak ez dira horren errudunak, eta ez dute zure jarrera hori merezi.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Agate Deunan kolpeka lurra esnatu ibili ondoren, laster mozorrotuta inguruko auzokideak lo ezinik uzteko txandaren zain zaude.

Algortako gasolinerazaharrak utzitakoak



50 urteko zerbitzua eman zuen Algortako Etorbideko gasolinerak

Ia zazpi urte pasa dira Algortako gasolinerak bere ateak betirako itxi zituenetik. 50 urtez getxotzar guztientzako erreferentziazko gasolindegia izan zen, 2016ko uztailaren 16an bere azken zerbitzua eman zuen arte. Algortako Etorbidean kokatuta zegoen, baina, aurretik, Alango kalearen eta Algortako Etorbidearen arteko izkinan zegoen. 1966. urtean Goñi Alzueta familia nafarrak gasolineraz sortzea erabaki zuen, eta ordutik hainbat modernizazio-aldaketa bizi izan zituen eraikinak. Gasolineraz oraindik zabalik egongo balitz, ateak itxi zitueneko zifraz alderatuta, oso prezio ezberdinak erakutsiko lituzke: gaur egun, gasolina-litroa 1,8 euro inguruan ikustera ohitu gara, euro pasatxotik oso urrun.

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK



Hamaika ikusteko jaioak

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu izar-uxook
handienari 1, hurrenari 2
eta txikienari
8 zenbakia emanaz.



Zer egingo duzu inauterietan, eta zertaz mozorrotuko zara?



IÑIGO GARCIA
PORTUGALETE

Oraindino ez dakit oso ondo zer egingo dudan, baina seguru aski, kuadrillarekin Bilbora joango naiz. Bertan, taberna asko dago, eta giro polita sortzen da inauterietan. Momentuz, ez dakigu zertaz mozorrotu; joan den urtean karlistaz mozorrotu ginen, beraz, beharbada mozorroa birziklatuko dugu.



AMAIA ALCALDE
BILBO

Aurten, liburutegian ikasten pasatuko ditut inauteriak. Oraindino ez dut azterketarik, baina ikasten hasi behar naiz. Azken momentuan, beharbada, Bilboko Alde Zaharretik zerbait hartzera aterako naiz, baina ez naiz mozorrotuko. Nire kuadrillakoak bai aterako dira, baina oraindino ez dute mozorrorik.



IRATI DELGADO
DURANGO

Urtero bezala, ni Durangotik aterako naiz, beti izugarrizko giroa sortzen delako. Kuadrillan ez dugu zehaztu oraindino zein izango den gure mozorroa, ez garelako ados jartzen. Hala ere, plana gutxi-gorabehera zehatuta dugu: bazkari edo afari bat egingo dugu, eta gero parandan aterako gara.



ASIER GONZALEZ
LASARTE

Guk Lasarten ez daukagu Tolosan edo Durangon egiten diren jaien modukorik, beraz, gure adinekoak Tolosara joan ohi gara inauteriak ospatzera. Normalean, kuadrillakook arazoak izaten ditugu mozorroa erabakitzeke, baina aurten ados jartzea lortu dugu, eta rastafariz joango gara mozorrotuta.



ALISON MENDIZABAL
ERANDIO

Ni Erandioko Altzagakoa naiz, baina inauteriak ez ditugu bertan ospatzen, ez baitago giro askorik. Horren ordez, Sondikara joaten gara; hangoak oso ospetsuak dira eta giro asko egoten da. Gaia ere libreza izaten da, ez dute bat zehatza jartzen, beraz, ninjaz mozorrotuko garela uste dut.



INAR ASPIROZ
ZARAUZ

Normalean, lagunaren artean pentsatzen dugu zertaz mozorrotu, denok batera joateko, baina oraindino ez dugu pentsatu zertaz jantziko garen, aurreko astean erabakiko dugu. Urtero ospatu ohi ditugu inauteriak, batzuetan Zarautzen bertan, edo bestela Tolosara joaten gara.



AITOR RENOBALLES
BILBO

Lagunen artean pentsatu ohi dugu zertaz mozorrotu, baina oraindino ez daukagu oso argi; izan ere, normalean, azkenengo momentuan inprobisatzen dugu zerbait. Hala ere, aurten ez dakit ospatuko ditudan, agian eskiatzera joango naizelako, hala ere, normalean Bilbon ospatzen ditut.



LAURA DIAZ
BOGOTA (KOLONBIA)

Duela astebate heldu nintzen beka bategaz ikastera, beraz oraindino ez dut mozorroan pentsatu. Bestalde, Kolonbian, hainbat jai ospatzen dira, lurralde bakoitzeko kulturaren arabekoak. Adierazgarrienetako bat «Fiesta de blancos y negros» da, baina ezagunena Barranquillakoa da.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Arima Soul kontzertua

Martxoaren 3an, barikuan, talde ikusgarri honek emanaldi berezia eskainiko du Getxoko Muxikebarri Antzokian, 21:00etatik aurrera. Sarrerak ditugu zuretzako!

Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, otsailak 26a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.



Zozketa

Bisita liburu ilustratua

Pamiela argitaletxearen eskumenez, Ata Pank eta Ate Punky ahateen abentura berri batez gozatzeko liburu-ilustratu eder honetaz gozatzeko aukera izango dute txikiak. Zuretzat gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailak 28a (martitzena) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.



Zozketa

Karpin Fauna ezagutu gura?

Karrantza Haranean, naturaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude zure zain. Zentro hori bisitatu gura duzu? Sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailak 28a (martitzena) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Taldeen arteko lehiaketa berria

Erruletari eman, galderak ondo erantzun eta sari potoloak irabazi



3 lagunez osatutako klana sortu, jokatu eta irabazi puntuak zure taldearentzat

**Nork irabaziko du?
Puntu gehien egiten duen taldeak**

Lehiaketa urtarrilaren 23tik martxoaren 24ra arte izango da. Izena emateko epea irekita!! Otsailaren 13ra arte

Izena eman



Getxoko bi talde onenetako jokalariek tablet bana jasoko dute

Final handia Bilbon

Eskualde bakoitzeko bi talde onenek sari itzelak irabaz ditzakete



Getxo
bizi ezazu

Aplikazioa deskargatu
gurot.eus

Jarraitu berri guztiak

